

Itzulpena: Chomsky-ren azken liburuetatik. ☐ Elkarrizketa: Kepa Ordoki: «Bilbo entregatzea izan zen grabea». ☐ Dosierra: Hogeiturote 68tik. ☐ 68a munduan zehar. Iñaki Müller. ☐ Paris lehertu zenekoa. J.P. Duteuil. ☐ Txekoeslobakia 68. Mikel Dorronsoro. ☐ Hirurogeitako hamarkada Euskadin. Jokin Apalategi. ☐ Euskal apezten protesta. Paulo Iztueta. ☐ 68ko maiatza eta arazo nazionala. Xamardo-Azkargorta. ☐ Ezkerrak nola galdu zuen bere testoa. Joxe Azurmendi. ☐ Saiakera: Perestroika. Pablo Sastre. ☐ Negoziaketak. Beltza. ☐ Thomas Bernhard. Joakin Balentzia.

## Hogeiturote 68tik




## ELKAR HIZKETA

Kepa Ordoki, gudarien komandante

### **«Santoñakoa baino Bilbo entregatzea izan zen grabea»**

**1930etik gaurdaino Euskal Herriak bizi izan dituen gerra eta gatazkak gertutik baino barrutik bizi izan dituen gizona dugu Kepa Ordoki. Erdi-nafartarra den Irunen sortua, muga frontera baino ataka edo kontrabandolekutzat daukan Irun honetakoa, Bidasoa ertzean bizi duzu gaur ere. Urte 60dik eta galnerako hilabeteetan Kortsikan. Sasol ederra, buru argia eta zakukada bat malezia.**



**LARRUN.— Zure bizitzari buruzko xehetasun batzuk nahi genituzke, hasteko.**

Kepa Ordoki.— 1912ko abuztuaren 3an jaio nintzen, «Ibarla» izeneko baserrian, hemen Irunen. Gripe espainiar izurri bat gertatu zen gure haurtzaroan, eta gurasoak ere hala gaisotu zitzaizkigun. Aita gero pulmonia bikoitz batez gaisotu zen, eta «Frantxinberri» izeneko baserri batekoek hartu ninduten behiak zaintzeko: goizeko bostetan behiak zaintzera, eta arratsaldean eskolara, hola zazpi urtetatik hamar urtera bitartean. Hamar urte t'erdirekin komunioa, nahiz eta gazteegia izateagatik utzi nahi ez zidaten, aurreratua ibili nonbait. Aita eritutakoan zorretan hartutako diru bat ezin bueltatu izanagatik behiak kendu zizkiguten, oraindik entzuten ditut haien kate-hotsak, behiak libratzerakoan.

Nik lan egin nahi nuen nola edo hala, eta mehategietara joan nintzen lan-eske. «Minazuri»n hartu ninduten hamabi urte nituela, pintxe moduan. Goizeko seietan hasi eta hamar ordutako lana, eta gaueko pintxea iritsi ez baldin bazen igoa hogei ordu egin behar segidan. Gure aitak orduan karretero lana egiten zuen eta 2,50 pezeta irabazten zuen eguneko; nik berriz 3 pezeta. Ilunabarrean, minerala jaisten zuten funikularren planoe-tatik barrena korrika eskolara, bidean «dos-por-dos-cuatro», «tres-por-dos-seis» kantari...

**L.— Adin horretako mutiko batentzako lan izugarria izango zen...**

K.O.— Txikia izanagatik indar puska bat banuen, eta minatan geratzeko aukera eskaintzen zidaten. Baina nik ofizioa ikasi nahi nuen, eta iheltsero izatea neukan buruan. Ofizioa ikasteko orde, apendiz izateko, ordaindu egin behar zen, eta nik dirua behar nuen ez pioi sartu nintzen. Ilunabarrean eskolara, eta goizean goiz behar baino lehentxoago joan obrara, ofizialentzako materiala prantatu, iheltsua, adreiluak, eta abar, eta ni ere hasi nintzen pittinka-pittinka ateratzen nuen denboran ofizioa praktikatzan. Denborarekin, orduan «aprobetxante» deitzen zen mailakoen lana egiten nuela ikusirik jornal gehiago eskaŕtu nuen, eta eman ez zidatenez, Donostiara lan bila. Tarte horretan, borroka politikoa hemen zebilen, Primo de Riveraren diktadura, nazionalistak, sozialistak... Askok sofritua nintzen, ezker aldera jotzen nuen beti. Dexente irakurtzen nuen, eskuetara erortzen zitzaizkidan guztia.

Lan berri bat nahi nuen, Donostian, baina tranbia ere pagatu behar zen, eta dirua behar. Kontrabandoan jende asko zebilen hemen, Donostiara iristen zen txanpain guztia hemendik pasatzen zen. Hala hasi nintzen ni ere laguntzen, hemengo baserriar kontrabandista batekin, eta lehendabiziko hamabost duroak eskuratu nituen. Bizikleta erosi



*Bataillaren ondoren, Agirre lehendakaria Gernika batailloa bisitatzen.*

nuen, plazoka ordaintzekoa, eta Donostiara lan bila. Mendizabal izeneko batengana joan nintzen eta harekin hasi.

**L.— Baserritarra, euskalduna, eta aldi berean obreroa ere bai. Gaztetan harripatu zintuen Errepublikak, eta berekin ekarri zuen astindua.**

K.O.— Soldaduzka egina nuen ordurako. Gure aita «frantsesa» zen, guraso Ziburutarren semea, nahiz eta bera Irunen jaioa izan, eta ni ere Frantziako kontsulatuan nengoen apuntatuta. Lagun guztiak hemengoak nituen, noski, baina kinta berekoei deitu zietenean koadrila guztiaren artean baginen hiru kasu berean geundenak, «frantsesak». Joan gara kintoen afaritara, eta handik Sanmartzialera baratzuri-zopa jaterra. Etorri zaigu Guardia Civila bere zerrendarekin eta hiru geundela soberan. Gainerako kintoek «o todos o ninguno» esan eta kamioitik salto egiten zuten, lurrera. Eta guardia civilek azkenean hartu eta bakeagatik denok kamoirara.

Udaletxera iritsi eta ez zigutela sartzen uzten eta lagunak barrotei eutsi eta «o todos o ninguno», eta azkenean denok barrura. Hala egin ninduten ni espainol. Baina begira gauzak nola diren: nere bi lagun «frantsesek» gerra iritsitakoan alde egin zuten Iparraldera, eta frantsesek hartu eta enbaxadan bere izena kendua ez zuten «profugo» deklaratu zituzten eta Aljeriara bidali hiru urtetarako. Nik hori jakin nuen eta hemengo gerra guztia egin ondoren haruntza pasa nintzenean gure amaren izenarekin pasa nintzen, ama Oiartzungoa bait nuen. Baina hori askoz beranduagoko kontua da.

## **II. Errepublika nahasi hura**

**L.— Bai, zeren eta zuri soldaduzka Errepublika garaian tokatuko zitzaizun egitea. Primo de Riveraren diktadura ezagutu zenuela ahanzi gabe.**

K.O.— Gogoan dut, bai, nola pasa zen Primo de Riveraren gorpua hemendik trenaz. Ordurako istilurik ez zen falta, somatenekin, poliziarekin, gu berriz pintura potoak hartuta batean eta bestean pintatzen... Errepublikarekin politikak beste bizitasun bat hartu zuen, partiduak ateratzen hasten ziren, eta gogoan dut besteren artean nola antolatuta zen Acción Vasca Irunen. Han ziren Narbarte, Ponte, eta abar, intelektualak gehienak, talde hartako obrero bakarrak Bentetako Zabala bat eta biok ginen.

**L.— Hau da: ANV PNV baino ezkerre-rago zegoen, baina obrero abertzaleak gehienbat PNVn zeuden.**

K.O.— Horixe. Izan ere, ANV errepublikanoekin bait zegoen. Ni euskaldun sentitzen nintzen, baina ezkerrekoa ere bai, eta tira, gu errepublikanoekin-eta. Bestela, denak «intelektualak»: Ponte «Palmera» lantegiko zuzendaria, Iribarren, Gaspar Montes-Iturrioz pintorea, bere anaia Manolo hil berria,

**«ANVren kontrariorik gogorrenak PNVkoak zirela esan dezakegu».**



**«Idealistak izan gara beti ANVkoak: bileretara ez ginen joaten baina egurra eman behar zenean gu beti han».**

gure lehendakari izan zen NARBARTÉ... Irun dena dela ez zen ANVren zentro garrantziko bat, baina denborarekin, gerra atera ez balitz, hala izango zen. Ez Irunen bakarrik, Euskadi osoan ere bai. Ahaztu gabe beste alderdietatik jartzen zitzaizkigun oztupoak, batik bat PNVtik: esan dezakegu gure kontrariorik gogorrenak jeltkideak zirela.

Irun beti herri errepublikanoa eta liberala izan da. Orduan Irunen, «barrioan» bizi ziren kanpotarrak, espainolak, eta behekaldean, gerra ondoren «Mosku» deitu zaien honetan, Irungo jende «jatorra». Baina orduan irundarren artean, ezkerreko zein eskuinekoak izan, beste giro bat zegoen. Hauteskundeetan bakoitzak bere aldera joko zuen, baina elkarrekin txikito batzuk hartzeko prolemarik gabe.

**L.—** PNVren eta ANVren artean orduan ziren diferentziak gaur nola gogoratzen dituzu?

**K.O.—** Hasteko PNVk «Jaungoikoa eta Lege Zarra» lemarekin segitzen zuen, gero ugazaba asko izaten ziren batzokian... Gure partiduaren programa askoz ere aurreratua goa zen. Ni euskalduna nintzen, aitzak ez zekien espainolez, eta nik hobeki egiten nuen euskaraz, baina gurea sozial aldetik PNV baino askoz aurreratua goa zen. Orain ere hala den bezala, nahiz eta asko aldatu den.

Apaiz eibartar bati entzuna diot garai hartan: «Zer nahi duzu? Jaungoikoak hola egin ditu gauzak: aberatsak eta pobreak. Aberatsaren semea aberatsa izango da, eta pobrearen semea pobrea. Baina bihar zeruan pobreak meritu handiagoa izango du aberatsaren semeak baino». Eta pentsakera hori nik ezin nuen ontzat eman.

**L.—** ANVko jendea entzuten zaizue jeltkideei «beatos», «meapilas» eta hola-koak botatzen. Zuek ez al zineten mezatara joaten, bada?

**K.O.—** Batzuk joaten ziren, baina gehienok ez. Onbre, lagun baten hiletara bai, orain bezala.

**L.—** Muga ingurukoak ez garenok beti harritzen gaitu mugari buruz Hendaia eta Irungo jendeek duzuen ikuspegiak.

**K.O.—** Beno, hasteko muga beti egin da kontrabandoa, gupilak, zeta, edozer. Hara-gi askoz hobea zegoen Hendaian, eta Irungo jende aberatsa haruntza pasatzen zen eros-

ketak egitera, han zeuden Lafayette eta abar, udan berriz Hendaia, Donibane edo Miarritzera, kasinoetara, hango villa eder asko espainolenak ziren... Eta bitartean kontrabando asko.

Gauza bera lanerako. Hendaian hartzen zituzten lanak Irungo kontratista askok, Irungo obra asko berriz «frantsesek» egiten zituzten. Eta mugaren alde batetik bestera langileak beren karro handiak hartuta, pioia soka batetik aurretik tiraka, atzetik bultzaka ofizialak, gero hasi ziren kamoia... Irungo azken ur-ekarrera Hendaia-ko kontratista bat-ek burutu zuen, 1931-32an. Eta ez orain bezala pasaportearekin, orduan ezer gabe pasatzen ginen, elkarren ezagunak ginen eta, sekula ez nuen pasaportetik erabili.



**Alemanen kontra bizia emandakoei omenaldian arramiletea eramaten Leizaolarekin.**

## **Gerra aurreko istiluak**

**L.—** Gerra aurreko «Euskal Berpizkundea» sarritan aipatzen da, Aitzolen obra osoa ere argitaratu berria da. Nola bizi izan zenuten giro hura zuen herrian?

**K.O.—** PNVkoak indar handia hartzen ari ziren, guk ez bezalako bitartekoak zeuzkat. ANVkoak beti idealistak izan gara, nola-bait esateko: bilera bat zela, eta ez ginen joaten, baina egurra eman behar zenean han geunden gu beti. Gogoan dut San Antonen egin genuen bilkura bat, Oreretatik, Bilbotik eta abar etorritako ANVkoekin, eta herriko jeltkideak, gure lagunak, han azaldu ziren, egurra ematera: sekulako jipoia eman ziguten, ikurrinak puskatu zizkiguten, hantxe denok muturjoka, 32an izango zen. Gerra gero gauzak oso diferenteak izan ziren. Duela gutxi hila da Karlos Iñiñiz, hemengo gerran gurekin ibilia, bestaldera ihesi joan ginenean ere elkarrekin ibilia gara, eta

biok borrokan aritu ginen San Antonen! Gero gure lagunik handienak izango zirenak!

Errepublikak garaiez ari gara, eta Partidu Komunistakoak ere baziren hemen. Ez zuten indar handirik, baina ateratzen zirenean ateratzen ziren gero! Indar handia zutenak sozialistak ziren, UGT. Manifestaldi bat egiten bazuten, beren alkondara urdin eta pailu gorriekin, gu espaloian kuzkurtuta bezala, beldurrez, «hemen dira gorriak!». Gero gu ere ausartuz eta indartuz joan ginen. Irakurria izango duzu zerbait urte haietan izandako tiroketa batzuen gain: nazionalista batzuk hil zituzten, eta orduan Idiakez izeneko batek sozialista bat hil omen zuela eta espetxean sartu zuten... Horra, Idiakez presonde-gian eta abertzaleak hil zituztenak libre. Eta

kanpaina bati ekin genion, «Libertad para Idiakez», «Amnistia», horma guztietan, kaleetan, gaur bezala. Hala harrapatu ninduten guardia civilek, etxe zuritu berri batean idazten ari nintzela, eta espetxera eraman.

**L.—** Denboraren poderioz gauzak inbentatu baino lehengoak berritu egiten direla dirudi. Gaur egun ikusten ditugun istilu sozialen antzekorik ezagutu al ze-nuen garai haietan?

**K.O.—** Bai, gizona. Pasaian, adibide bat jartzeko, greba iraultzaile bat egin zen. Aldasoro zen gobernadore zibila garai hartan, euskalduna, Tolosakoa, errepublikano fin bat. Eta grebalariak Donostiara abiatu ziren manifestazioan. Bidean aurkitzen dituzte karabineroak. Hauek «alto», eta aurrean haur eta guzti zihoazen emakumeek «que sois nuestros maridos, que sois nuestros hijos, que sois nuestros hermanos!» eta karibeneroek pasatzen utzi zieten. Gero militarrek

aurkitu zituzten eta haiekin berdin, «que sois nuestros maridos, que sois nuestros hijos» eta haiek ere utzi. Baina Ategorrietarako erlojuetara iritsi ziren eta han zegoen Guardia Civila zaldi gainean; jo du abisoa, «alto», besteek «dejarnos pasar», tiroka hasi eta zazpi edo zortzi lagun hil zituzten guardia civilek, tartean haurrak eta emakumeak.

Baina ez da hori bakarrik, horrek historia are latzago bat badu. Greba mugimendu haren bultzagileetako bat Eibarkoa zen, Izpizua edo Azpiazua izenekoa. Hartu eta espetxean sartu zuten, eta nik han ezagutu nuen, Ondarretan. Ordurako jendeak susmoren bat hartua zion. Baina gerra etorri zen, galdu dugu gerra, Santoña, Larrinagako gartzela, Burgos... eta non aurkitzen dugun Burgo sen bota altuekin eta alkondara urdina jantzita, fletxa eta guzti, kapitain graduarekin, bizitarako kondenarekin. Falangera pasatua zen, eta batailoi falanjista batean administra-

100.000». Eta han ziren komunista eibartar batzuek gainera saltatu zitzaizkion, Jesus Larrañaga ondradutasun frogatuko gizona zelako. Baina beste-biena egia zen. Ikusten duzu, Izpizua hori zen langileriaren konfiantzazko gizona, eta begira nola eraman dezakeen diruak gizona ustelkeriarik izugarrienera. Eta gertakizun eta gizon asko beste batzuek atzetik nola manejatzen zituzten ere ikusten duzu, nola filtratu dezaketzen jendea. Gero eskuinak esaten zuen «begira zer ekarri duen Errepublikak»...

### Fazistak altxa direla

**L.— Gerra zetorrela sumatzen al zen, edo sumatzen al zen kalean?**

**K.O.—** Zerbait bazetorrela igerri zen. Prentsagatik, Espainian gertatzen zirengatik, Calvo Soteloren itiluek zirela, Kongresuan entzuten ziren gauzak... zerbait presta-

ren, Guardia Civila akoartelaturik zegoen, Karabineroak gurekin etorri ziren. Karabineroetako buru Ortega tenientea bait zebilen; errepublikano izateagatik lehen ere espetxean egona zen eta oso ondo, baina oso ondo portatu zen. Gero Valentzian afusilatu zuten gerra bukaeran. «Zoazte Berara» esan zigun, «eta gutun hau eman iezaiozue hango tenienteari».

Berara iritsi eta hango karabineroak kanpoan formatuta aurkitu genituen. Reketeak bazetozela ondo zekiten eta haletara biltzeko prestatuta zeuden. Ortega esaten zion gutunean fazistak jazartu zirela eta Errepublikan lagundu beharra zegoela, eta bera egiten zela eskualde guzti honetako buru, Madrildik hartutako aginduak zirela medio. Reketeen bila gindoazela eta karabinero batzuk eskatu genizkion; zortzi utzi zizkigun, eta denok abiatu ginen Iruñerako bidean aurrera. Lesakako zubia pasa eta laster egin genuen topo lehendabiziko rekete kolumnarekin, beren tanketa eta hormigoi armatuz



*Montalivet-en De Gaulle ikurrinari eta Libertad batailoien banderari agur egiten.*

dore zegoela parranda-gau batean, kabaret batean, Legioko kapitain bat akabatu zuen bere pistolaz. Heriotz zigorra ezarri zioten, baina Falangekoek lortu zuten gartzela kondenaren truke aldatzea.

Espetxean, gure jendeak kontsigna garbia pasa zuen: ezin zela harekin hitzegin, hutsunea egiteko. Baina oso gogorra zen, patiora aterata, Eibarko bere aspaldiko ezagunak, denek berriak jakin nahi... Han jakin genuen Pasaian gertatutakoaren egia. «Zuek ni traideratzat naukazue— esan zuen —eta esango dizuet 50.000 duro ordaindu zidatela greba hura prestatzearen truke». Eskuin espainolak berrogeitamar mila duro pagatu zizkion! «Baina halakori eta beste horrako horri —eta izenak eman zituen— bati 30.000, eta 20.000. Eta Jesus Larrañagari gutxienez

zuten ari zirela nabari zen. Hala gertatu ere. eta uztailaren 17an zabaltzen hasi zen Marokon sublebatu zirela.

**L.— Eta iristen da uztailaren 18a, gure historia hankaz gora jarriko duena.**

**K.O.—** 18an Donostian nintzen, lanean noski; handik iritsi eta lagunartean ari ziren komentatzen gertakizunak. Eusko Langileen egoitzatik «Centro Republicano» delakora joan ginen, irratia entzun, hau eta bestea eta etxera. Goizaldeko ordu bi t'erdietan koinatua etorri zitzaidan, karlistak zetozela esaka, joan beharra zegoela. Hartu gure eskopetak eta goazen. Jende pila bat zegoen ez eskopetarik eta ezer ez zuena. Goizaldeko hiru t'erdietan eskopeta denda batera, Foru kalean, eta handik hartu genituen. Hola hasi zen gerra Iruñen. Harmak banatzen hasi zi-


**«Muniziorik gabe geratu eta tomate-poto batzuk polboraz bete eta lehertaraziz defenditzen ginen».**

blindatutako kamioiekin. Tiroketa hasita, kamioia han utzi behar izan genuen eta mendiz Iruñera. Berri eman genien hementxe, eta biharamonean Endarlazako zubia lehertu zuten, bestela handik pasako ziren eta.

**L.— Eta orduan esan daiteke hasten dela zuen jaioterriaren defentsa.**

**K.O.—** Bai. Endarlazatik pasa ezinean Alzaten barna San Martzial eta Erlaitz aldetik sartu nahi izan zuten, baina handik ere moztu zitzairen bidea. Gure jendea zegoen Aiamendi aldetik, Pikoketatik, Arkaletik... Gu Aiamendira bidali gintuzten, 21-22an izango zen. Ikusten genituen nola zetozen, eta abiazioa eta artilleriaren laguntza eskatzen genuen. Halako batean abioi bat azaldu da eta atera gara denok sasi artetik, oihuka, jaitsi zen eta non botatzen dituen hiruzpalau txupinazo, baina gure gainera. Gu berriz artean gurea zelakoan «el, gaizki tira duala, haruntzago daudela» eta zentralera komunikatzen. Biharamonean beste bi abioi gehiago azaldu ziren, eta laster Iruñ bonbartzatzen hasi ziren. Haiek abioiekin eta gu kartutxo bakan batzuekin.

Halako batean antiaereo bat ekarri zuten herrira, Elgoibartik edo. Bukatu gabe zegoen, oso traste dotorea, kristoren mekani-



«Jefe batek ez ditu bere tropak sekula abandonatu behar».

**Agirrerren telegrama:**  
gudariei «etorkizuneko euskal Armada deitzen die».

ka zeukana, baina ez zuen funtzionatzen, eta okerrago zena, hura martxan jartzen zekien inor ez zegoen. Aboi bat etorri zela eta jendea tiroka, batzuek perdigoiekin, eta gu aldiz «ez tira, ez tira!» oihuka, alferrik bait zen. Begira gauzak nola zeuden.

**L.— Giro horretan, dena nahasita eta zuek boluntario, nola organizatzen zinen?**

K.O.— Laster osatu zen Defentsa Batzordea, PNV, Izquierda Republicana, UGT eta alderdi guztiek osatua. Denen aurretik ikusten zen Kristobal Errandonea, hor zebilen Karlos Mitxelena bere taldearekin, PNVkoa bera, nik ere banuen nere taldea... Koadrilaka banatzen gintuzten, eta Kristobal Errandonea ibiltzen zen batetik bestera, Ortegarekin. Gero talde organizatuak azaldu ziren, CNTkoak Donostiatik eta Hernanitik, Asturiastik iritsi ziren boluntarioak... Baina ez geunden konpainia, sekzio eta abarretan organizatuak. Partidu bakoitzak bere gizonak zituen. Gu disziplinatuta geunden eta Kristobalek eta Ortegak agindutakoa egiten genuen, baina bestee, eta baita Irungo CNTkoek ere, igoal janaria eskatu eta bidali ez zietelako trintxeratik atera eta atzera egiten zuten. Gero frantses batzuk etorri ziren eta haiei gehixeago obeditzen zitzairen. Baina disziplina esaten dena, ezer ez. Hori bai, etsaiak atakutzen zuenean, aurpegia eman behar zenean, denok defenditzen ginen han gogor.

### Tira nahi eta ezinean

Gero Sartu ziren Pikoketatik, hamasei-hamazazpi preso hartu zituzten eta hilerrian afusilatu. Eta gero atzeraka. Erlaitz eta San Martzialgo guduketak oso gogorrak izan ziren; ez dakigu zergatik baina lekuri zaile-

netik eraso ziguten. Han erori ziren Ortiz de Zarate eta Beorlegi koronel karlistak. Pentsa zein gogorrak ziren erasoak, ezen izan bait ziren lejonarioak ihesi frontera pasa zutenak. Beraiek abiazioa bazuten, baina gu ondo atrintxeratuta geunden, eta eusten genien. Muniziorik gabe geratu eta han defenditzen ginen tomate-poto batzuk hartu, polboraz bete eta lehertueraziz. Azkenean muniziorik gabe geratu ginen eta hala galdu genuen San Martzial. Eta hala galdu genuen Irun ere.

**L.— Gogorra izan behar du munizio faltaz atzera egin eta azkenean erretiratu beharra.**

K.O.— Hala galdu genuen Irun, bada. Arma kargatutako tren bat bazegoen Hendaietan, Bartzelonatik bidalita, baina fazista frantses eta espainolen artean zeukaten adiskidetasuna zela bide ez ziguten pasatzen utzi. Hori bai, Irun erori eta biharamonean tren oso-osorik pasa zuten.

Munizio faltari lotutako pasadizo bat badut kontatu nahi nizukeena. Kristobal Errandoneak Donostiara bidali ninduen munizio bila, eta Gaintxurizketan gora nindoan, mexikano bati errexisatutako «Paccard» batean, irrati eta guzti zuen auto batean. Aldapan gora gindoazela Queipo de Llanoren abotsa entzun genuen irratitik: «En estos momentos, los tanques del Glorioso Ejército Nacional suben las cuevas de Gainchurizqueta y están a las puertas de San Sebastián. Los rojo-separatistas huyen como liebres». Eta ni nintzen Gaintxurizketako aldapan gora zihoana.

Kasualitateak zer diren: nik Queipo de Llano ezaguna nuen. Errepublikaren alde egin zen lehendabiziko ekinaldian, 1930ean, Queipo de Llano konprometitu zegoen errepublikanoekin, Prietorekin eta Unamunorekin-eta Frantziara ihesi joan behar izan zuten. «Las hojas libres» izeneko panfletoak

argitaratzen zituzten, eta guk kontrabandoan, pantorritetan-eta gordeta, pasatzen genituen. Monarkia erortzekotan zegoenean, Queipo de Llano eta Unamunok pasa zuten frontera, oinez, igandea zen. Baiona, Donibane Lohizune, Oretako bandak han ziren, Gal estadiumean partidua zegoen eta milaka lagun bazen han. Kate bat osatu genuen Hendaiako zubitik Centro Republicano delakora, eta oraindik han ikusten ditut pasatzen Queipo de Llano bere jeneral fajin eta guzti, luzea, Prieto, Unamuno, eta abar. Eta Centro Republicano leihotik Queipo de Llano esan zuen: «Camaradas: ¡Viva la República! ¡La República será la salvación de España! ¡Los obreros vivirán con dignidad!».

Horretaz gain, soldaduzkan ezagutu nuen. Alcalá Zamora presidentearen semea gurekin zegoen, Jacan, eta bere lagun handia nintzen. Errepublikako presidentea etorri zen semea bisitatzea eta sekulako mugimendua koartelean. Rantxoaren ordua iritsi da eta hango jeneral, koronel eta guztiak han joan ziren Jacako restaurante batera, eta ni semearen laguna nintzen, berekin eraman ninduen bazkaritara. Gogoan dut Queipo de Llano han egindako diskurtsoa, Errepublikak herriari ekarriko zizkion aurrerapenak kontatuz, «Viva la República» hemendik, «Viva la República» handik... Harri eta zur gelditu nintzen Queipo de Llanoren diskurtso berria entzunda, fazistekin zetorrela jakinda. Sekulako kolpea izan zen neretzako. Orduan esan nuen nerekin: «Ezin da konfidantzarik izan militarrengan, traidore batzuk besterik ez dira».

### Irun galdu eta atzeraka

**L.— Lortu al zenuen muniziorik Donostian?**

K.O.— Bai, tonelada bat gutxienik ekarri nuen. Baina alferrik izan zen dena. Irun galdu genuen eta Donostiara erreplegatu ginen. San Bartolomera eraman gintuzten. Han PNVkoak zeuden, eta ANVren bandera



**Azken blochausa hartuta: gerra bukatu da.**

neraman bakarra neu nintzen, ANVko gainerakoak sozialistekin, komunistekin, CNTkoekin bait zebiltzan. Esan beharra dago ANVkoak hasieratik sartu zirela saltsan, lehen egunetik, zeren eta PNVkoak egun batzuetan zalantzatan egon ziren, edo Errepublikaren alde erabat sartu edo neutral geratu erabaki ezinik. Gero bai.

San Bartolomen taldeka eta sekzioka organizatzen hasi ziren. Baina orduan ere gaizki: Irungoak talde batean zeuden, Hernanikoak beste batean... eta Irungoek egurrari jasotzen bazuten, Irungo zazpi edo zortzi eroriko ziren, edo gehiago, eta ez zegoen konpainia ondo organizatuetan bezala jendea nahasita. Baina kontrol gehiago bazegoen. Taldeburuak edo «jefe de grupo» batzuk zeuden; gero gidari jartzen zuten partiduko edo sindikatuko kargu bat, eta hauek batzuetan oso onak ateratzen ziren, baina beste batzuetan bulegorako bai baina agintzeko balio ez zutenak, tiratzeko balio ez zutenak. Lehen aipatu dugun Kristobal, adibidez, estrategia oso ona zen, eta adoretua gainera. Jesus Larrañaga, komunista, primerako estrategia. Baina ezagutu ditut partiduetako idazkariak kapitain jarrita batere ondo ibili ez zirenak.

**L.— Eta lehen Irun bezala Donostia ere galdu egin zenuten.**

K.O.— Hala galdu zen, bai. Bueno, Donostia galdu aurretik Andazarraten ere ibili ginen, han zeuden ANVkoen erreleboak egiten. Baina Donostiara iritsita, Hernanira bialdu gintuzten. Irailaren 3a izango zen, eta «besteak» Santa Barbaratik behera zetozen. CNTkoek ebakutzeko agindua eman zuten, eta herria erre behar zutela, okindegi bati ere su eman zioten... Gaur iritsi eta gu kaletan zehar genbiltzan. Erretiratzeko agin-

dua eman zuten, baina ohartu ginenerako denak aldeginak ziren, gu bakarrik geratzen ginen. Donostia ere ebakutzera zihoazela esan ziguten, telefonoz, eta ahal genuen bezala moldatzeko.

Hernanin zegoen destileria bateko anis-kupelak zulatu eta Donostia aldera jo genuen. Antiguara iritsita, jendeak holako beldur batez begiratzen zigun. Halako batean emakume batek esan zigun: «Zertan ari zarete hemen? Aldegin dute guztiek!». Kontxaraino iritsi gara eta aurrean azaltzen zaizkigu kamioiak, aurrean sidecar bat zutela, reketeen aspa famatuekin. Kotxea martxan jarri dugu, baina gasolina falta. Gasolindegian ere ez ziguten eman nahi, eta geuk behar izan genuen hartu. Eta horretan ari ginela kamioi guztiak paseak ziren. Lasarteruntz zihoazen kamioiak, eta haien artean sartuta joan ginen, Irubideko gurutzean Orio aldera hartu genuen arte. Beste lagunak mendiz joanak ziren.

**L.— Eta harrez geroztik, beti atzeraka. Hala ere, Irungo jende asko Ipar Euska-dira aldegina zen, seguruenik gerran gelditu zinetenok baino askoz gehiago...**

K.O.— Irungo udala Donostian osatu zenean herritar guztiei egin zitzaizen dei, eta denetara hirurogeitamar pertsona pasatxo ginen, emakume eta zaharrak kontatuz. Eusko Langile eta PNVko gudariak 48 ginen Irun eta Hondarribiakoak bilduta. Beste batzuk izango ziren frontean, sozialistak, komunistak eta abar. Baina Irundik alde egin zuten gehienek Frantziara alde egin zuten.

**L.— Ez gara gerra guztia pasatzen hasiko, zeren eta liburu bat beharko bait genuke. Irun eta Donostiatik aldegin-da, non kokatuko zenuke hurrengo puntu inportantea?**

«Gogoan dut Jacan Queipo de Llanok egindako diskurtsoa, Errepublikak Herriari ekarriko zizkion aurrerapenak kantatuz».

K.O.— Bermeo aipatu behar da. Orion bildu ondoren haruntza joan ginen, eta han bai, han organizatu ginen konpainiatan, eta handik frontera. Badakizu orduan frontea Ondarru, Eibar, Elgeta eta hortik gelditu zela. Bermeen eratu zen Sasetaren batailoia, bere bost konpainiekin. Guk gureari «San Marcial» izena ipini genion. Ni sarjentoa nintzen, ametrailadoreetako. Orduan iritsi ziren «Skoda» ametrailadore famatu haiek, Lezo de Urreztiaren bidez sartuta. Amaiur batailoia antolatuta zegoen, Loiola batailoia, Bizkaian beste batzuk ari ziren eratzen... Gero solidarioak ari ziren beste batailoia bat osatzen eta Batzorde Nazionaletik deitu zidaten, San Andres batailoian kapitain izateko, ordurako tenientetara igoa ninduten eta.

### **Gerrarako koadro faltan**

**L.— Gudari soil baten aldean karguetan zeundetenok zuzendaritza ezagutze-ko beste aukera bat izan zenuten. Armaz oso gaizki zenbiltzatela ezaguna da. Zer moduz zenbiltzaten estrategaz, formazioz, planifikazioz...?**

K.O.— Intuizioz jokatzan zen, ez zegoen ikasketarik. Kristobal Errandonea izendatu dugu lehen: taxiszalea eta mekanikoa zen, baina estratzea ona, agintzen zekiena, adretsua. Partiduak bazituen beste batzuk. Kandido Saseta zeukaten, militar profesionala, injinarietako kapitaina, elementu oso ona. Hil ere hala hil zen. Baina militar profesionalak baziren gurekin etorriak. Horien ahalmena batailetan ikusi zen: ez zuten batailiarik irabazten jakin. Loiolan gertatu zena ezaguna da, ikuspegi faltaz dena galdu zuten. Batzuk gero gurekin etorri ziren, eta horietatik gehienak gero etsaitara pasa ziren. Guk genituen agintari militarrekin ez zegoen inolako konfidantzarik. Eta beren artean ziren guretarak, haiek hala erori ziren. Gainerantzean, gurekin ziren militarrek zaharrak ziren, eta haiek diseinatzen zituzten operazioek ez ziguten konfidantzarik ematen. Nahiz eta batzuetan zuzenak izan. Hala ere, aitortu beharra dago Estatu Goren hark pentsatutako operazio gehienak gaizki pentsatuta zeudela, ez ziren estrategak.



Beraz, galtzearen eta egurra hartzearen poderioz, ez bakarrik armak erabiltzen, gerra egiten ere ikasi egin behar izan genuen. Hola atereak dira gure jefiak; onak urriak, egia esan. Ortega, Kristobal Errandonea, Kandido Saseta, Lino Lazkano, partidukoa, Beldarrain, Jesus Larrañaga, komunista. Beldarrainez oroitzen naiz, txikia, argala, sekulako serenitatea zuena. Inportantea da serenitatea. Nik ere hortatik banuela diote, ez dakit. Gertatzen zaizu guduan sartuta hamar minuturen buruan dena ahazten duzula, han ikusten duzuna baizik ez duzu buruan. Baina azkeneko gudariak baino beldur handiagoa pasea naiz.

**L.— Serenitatea eta adorea ez izan aski, nonbait, eta atzeraka zoazte, Bilboraino.**

K.O.— Baina latz borrokatuta. Kalamuan aritu ginen. Erretiratzeko agindua eman ziguten, eta ez nuen erretiratzetik nahi izan. Han gelditzea esker sei hilabetez han eduki genuen frontea, Kalamua abandonatu izan bagenu Bilbo berehala eroriko zen. Gero Solluben ibili ginen, Artxandan, Jatan...

**L.— Non ikusi zenuen argi eta garbi gerra galdua zenutela?**

K.O.— A!, Artxandan.

### **Galera segurua somatzen**

**L.— Artxandara bitartean gerra irabazteko modurik ikusten al zenuen?**

K.O.— Bai, jakina. Gaur egunetik begiratu ez, gaur garbi ikusten da gerra hura galdua zegoela. Baina orduan ez, Artxandara arte ez. Pentsa zenbaterainoko konfidantza neukan. Solluben zauritu ninduten, inglean, eta beste tiro bat besoan. Getxoko eritetxe batera eraman ninduten. Etsaia aurrera eta aurrera zetorren. Nik leihotik ikusten nituen kainonazoak gauez eta jendea erretiradan egunez.

Alde egin nuen ospitaletik, eta Eusko Langileen batzorde nazionalen presentatu nintzen, esanaz ezin nituela nere mutilak han utzi, erortzekotan denok behar bait dugu erori. Ikus ezazu. Erabateko konfidantza neukan. Konfidantza... eta hogeitalau urte!

Gero ikusi behar izan genuen bonbardeo guztia. Aboiak ba omen zetozela esaten zitzaigun beti. Baina zer egin behar zuten gure hiruk haien hogeiren kontra, nahiz eta gureak heroi bezala jokatu? Artilleriarik? Ez geneukan, gure bakoitzeko haiek berrogei zeuzkaten. Tankerik? Batere ez.

Artxandan eta Jatan gertatutakoak liburuetan hor daude, begira zer idazten duen Steer ingelesak. Aurrena artilleriaz kixkaltzen gintuzten, gero infanteria aurrera botatzeko. Eta bitartean gu han, harri zuloetan sartuta, harriak gure buruen gainetik, artilleria isildutakoan atera eta infanteriari atzera egin erazteko. Artxandakoa sarraskia izan

zen. Etortzen zen atzetik jende berria, benga goazen aurrera, eta ehun metrotara dena gorpuz beteta. Han erori zen gure komandantea ere, Gorroñogoitia, Caja Laboraleko zuzendariaren aita, eta bere orde z jarri ninduten.

**L.— Ez al zegoen gerrari buelta emateko modurik?**

K.O.— Begira, asturiar eta santandertarrak euskaldunek bezala gudukatu balute Euskadin fronte bat egin ahal izango zen, eta gehiago erresistitu ahal izango zen. Hemen 40 kilometro egiteko, Bilboraino iristeko, Francok 90 egun behar izan zituen. Ikusi Santander zein azkar erori zen. Hori bai, gero han ipintzen zituzten txartel batzuk esanaz «Santanderino, no imites a los galgos vascos», ihesi joan ginela adieraziz. Ikusi genituen hemen: batzuk bai onak, baina gainerakoek bi tiro entzun orduko jira eta korrika atzera.



**Fronteko hilerri batean, 1961ean. Ordokiren atzean Leizaola, Aldasoro eta Druille jenerala.**

«Cinturón de Hierro» deitzen zen hori gaizki antolatua zegoen, baina laguntza gehiagorekin denbora gehiagoz eutsi ahal izango genion. Eta beste aldetik, gobernu zentralak agintzen zigun laguntza ez zitzaigun iristen: abioiak, materiala... Errepublikak bidalitako jefe militarrek, gehienak etsaietara pasa ziren eta besteek ez zuten balio. Beraz, zer eginik ez zegoen.

Ez nintzen ni hori hola ikusten zuen bakarra. Askok ziren ihesa planeatzen ari zirenak. Askok dago honetaz hitzegiteko.

### **Ihes egin nahi zutenak**

**L.— Dena galdua dagoenean ihesi egiteak ez dirudi bekatu...**

K.O.— Jefe batek ez ditu bere tropak sekula abandonatu behar, sekula ere ez. Konpainia bat edo sekzio bat dagoen bitartean, hori ezin du abandonatu. Izan dira beren gizonak abandonatu ez dituztenak, baina izan dira, eta hori ere esan behar da, gauzak galdua ikusitakoan bere jendea abandonatu eta itsasoz alde eginaz, erantzunkizun handiko buruak, militarrek eta politikariak. Ez dizut izenik esango, batzuek argitaratuta daude han eta hemen. Baina hor daude, eta ondo kargatuta aldegindakoak, bitxiak eta abar hartuta. Eta are okerrago dena, Jose Antonio Agirreren sinadura faltsifikatuta ere bai.

**L.— Bizia arriskatu duen bati, pentsatzen dut, horrek emango dio inorengan**

**ez fidatzeko erabakia, eta seguruenik denbora asko pasata ere bai.**

K.O.— Pentsa ezazu! Kaso bat kontatuko dizut. Banuen batailoian gudari bat bere aitak bapora bat zuena, Oriokoa. Une kritiko horretan, aitak ez zuen bere semea abandonatu nahi izan. Izan ziren gidari politiko eta militarrek, kargu handikoak, komandantetik gorakoak, barku hori ihes egiteko presatu zutenak. Aitak hori ikusita, ez zuen abandonatu nahi izan, eta semea deitu zion: «Hator halako egunetan halako lekuta-



ra, baporea hartu eta alde egin behar diagu eta». Semeak ezetz, aitak baietz, dena galduta dagoela eta halakok eta bestelakok eman ziotela agindua. Gudariak etorri eta dena kontatu zidan, «utzi ezak dena, Ordoki, eta hator gurekin». Nik parte eman nuen eta norbait detenitu ere egin zuten. Ez dizut esango afusilatu behar ziren, ez dakit, baina ez dago hainbeste gizon hola abandonatzeko eskubiderik, eta erantzun zidaten «ikusiko duk, bihar hirtzakok ere berandu izanen duk».

Azkenean, Santoñan italiarrek sartu zirenean, badituzu lekukoak kontatuko dizutenak, gizonak galdetzen zuten «zer egin behar dugu orain?», eta garbi esan nien: «Nahi duenak alde egin dezala, baina norbait gertzen bada ni ere haiekin gertatuko naiz, haiei gertatzen zaiena gertatuko zait niri ere». Eta han harrapatu ninduten.

**L.— Santoñatik alde egiteko aukerarik ba al zegoen?**

K.O.— Bai, mugara, mendiz. Jakina, denak ez. Gudaroste osoa ez. Gauzak ondo atera izan balira bai, atera ahal izango zen. Egia da Santoñan pakto bat egin zela, baina Agirre ez zegoen ados horrekin, hori PNVk egin zuen. Agirrek lehenago beste jestio batzuk eginak zituen, Eusko Gudarostea bar-kuz ebakuatu ahal izateko, baina Azan-ñak-eta erokeria bat zela erantzun zioten. Barku horiek iritsi izan balira, gure gudari gehienak atera ahal izango ziren. Hala eta guztiz ere, oso probablea zen gerra galtzea.

**Etsaiari erretagoardiatik erasotzea**

Baina egia da, baita ere, indar errepublikanoen artean harremanak hobeto joan izan balira, gehixeago erresistitu ahal izango zela, gerra hilabete batzuetan luzatuz. Alemanak eta italiarrak Munduko Bigarren Gerra prest zeukaten, eta guk gehixeagoz iraun izan bagenu, gure gerra bukatu baino lehen ekin behar izango zioten berenari, eta denak beste bide bat hartu beharko zuen, ingeles eta frantsesek ez zuten neutraltasuna eraman zuten moduan eramango. Ongi esplikatu zion hori Agirrek Bartzelonatik erretiratzean muga pasata jendarmeen koronelari: «Orain zuen txanda da, gainean dituzue eta».

**«Hemengo gerran, etsaiaren erretagoardia gogor zigortu zitekeen, baina ez zen sabotai bakar bat ere egin».**

Baina gero daukagu Munduko Bigarren Gerrako esperientzia, eta hor ikusi dugu etsaiari bere erretagoardian ere gudua egin dakiokela. Ez genuen guk holakorik egin, eta gaur ikusten da egin daitekeela, etsaia bere erretagoardian desartikulatzea. Agirrek holako zerbait egin nahi izan zuen, bera izan zen bakarra, baina ez zioten laga. Baina badakit Agirrek hori pentsatuta zeukala.

**L.— Esplikatu ezazu hori gehixeago.**

K.O.— Iruñetik Eibarko trintxeretaraino ez zegoen ospitale pare bat eta deskantsuan zeuden batailoi batzuek besterik. Posible zen etsaiaren erretagoardiatik sartzea, Frantziaren adostasunez edo adostasun gabe, jende gutxiagorekin. Sartzen dituzu bi edo hiru mila gizon Nafarroatik, Elizondotik, eman dezagun, Frantziaren baimenarekin... baina kamuflatuta, gaur egun Hondurasek Nikaraguarekin egiten duen bezala, ofizialki ez da egia, baina egia da.

Ez hori bakarrik, gerrillero taldeak filtratu, dozenaka, sabotaia egiteko, zubiak edo elektrizitate estazioak lehertzeko. Hemen holakorik ez zen egin, baina gerra mundialean egiten ikasi genuen. Ordura arte ez zitzaigun burutik pasa ere egiten. Gaur eguneko material modernorik ez zegoen. Gerra mundialean abioietatik paratxutatzen zigiten paper hijienikoa, tabakoa, munizioak, egarria kentzeko limoi edo menta hautsa, ur ustela garbitzeko pastilak, gosea kentzen zuten pilulak... Hori bai, gaez ibili eta ibili, egunez ezkutatuta, bonbaz eta materialez kargatuta, behar zen zubia edo edozer lehertu eta lasai asko itzuli. Baina horretarako bagenituen «lapitzak»: karga prestatu, metxa mantxoarekin, eta lapitzak barruan dauka anpoila bat bere kable eta perkutoreekin, anpoila hustu eta barruan duen azidoak jaten du kablea behar den denboran. Bagenituen bonba imandunak... Gauza asko. Egia da horietatik hemengo gerran ez genuela ezer, baina etsaiak ere ez zuen hemen horiek lokalizatzeko beharrezko tresnarik. Erretagoardia gogor zigortu zitekeen, eta ez da egin sabotai bakar bat ere.

Militarrak gurekin egon izan balira hori prestatuko zuten, horretarako ikasten dute eta. Beste gauza bat: guk gure etxean genuen «boskarren kolumna», Donostian, edo Madrilan. Aldiz, guk ez genuen «kintakolumnarik» etsaiaren erdian, Salamancan edo Burgosen edo Iruñean. Informatuko gintuen jenderik ez genuen.

**Etsalaren eta gure kintakolumnistak**

**L.— Jendea izango zen, batik bat Euskal Herrian, pentsatuz zenbat jende gel-**



**ditu zen hilabete gutxitan frontearen atzekaldetik. Pertsonak baino sarea faltako zen.**

O.K.— Hori da. Guk bagenekien frontearen bestealdearen berri gutxi gora behera, Eusko Jaurlaritzak Nafarroa aldera bidalitako izpiaren baten bidez, larrua arriskatuz kontakto batzuk egiten zituen eta abar. Errepublikak ere edukiko zuen bat edo beste. Baina guk bakarren bat genuen bezala, besteek askoz gehiago zeuzkaten. Kaso bat kontatuko dizut, erakusteko zein inportantea den boskarren kolumna gure erretagoardian edukitzea. Zeren eta informazio zerbitzua bait da garaipen baten %50a, neretza-ko. Informatuta bazaude, badakizu nola eraso, nondik erretiratu... Abazioak ateratako argazkiak oso interesgarriak dira, baina informazio zerbitzua hobeto dago.

Nik banuen izeba bat Donostian Renovación Españolakoa zena, Goicoechearen partidukoa. Bere eta beste zenbaiten bila zebiltzan. Egun batez etxera etorri naiz frontetik, eta «izebak enkargua bialdu du, ea jan piska bat-edo bialduko diogun, halako lekutan dagoela». Donostiako etxe batean zegoen. Izeba hori oso ondo portatua zen nerekin, hilabete lehenago nere ezkontzan madrara izan nuen. Hartu nuen janari piska bat eta Donostiara. Garibai kaleko pisu batean zegoen, izugarrizko pisu batean. Apezpiku bat ere bazegoen han ezkutatuta. Eta plano handi bat zeukaten: plano hartan gure frontea eta beren fronte guztia orratzez markatuta zeukaten. Gurea gutxi gora beherakoa zen, baina etsaien frontea erreala zen, zubiburu guztiekin eta abar. Une hartan gure Estatu Gorenak ez zekien frontea nola zegoen, Pikoketan zeudenek bakarrik zekiten

aurrean karlistak zeuzkatela, eta etxe hartan aldiz egoeraren berri xehea zeukaten.

Guk ez geneukan ezer. Noizean behin deskubiertaren bat egiten genuen... Nere taktika beti horixe izan da: etsaiaren lineak pasa, ikusi, eta itzuli. Itzultzerakoan beti ekartzen zenuen zer bait, prisioneroren bat, edo gehiago ere bai, argazkiak atera... eza-gutu. Baina pasatuz.

**L.— Eusko Jaurlaritzak ez al zeukan bere informazio zerbitzurik?**

K.O.— Bazeukan, bai, eta bere buru zegoen beste irundar bat, Pepe Mitxelena, balio handiko gizon bat. Eusko Jaurlaritzak bere Errepublikak baino askoz zerbitzu hobea zeukala uste dut, haiek pasatzen zioten informazioa. Asko kostatu zen zerbitzu hori antolatzea, Irun eta Donostia galduak bait ziren ordurako. Pepe Mitxelenak bapote txiki edo motor batean egiten zuen bidaia, Donostiara, Bilbora, bizia arriskatuz. Gero beste batzuek egiten zuten bidaia, baina hasieran berak pertsonalki.

### **Barkuzko operazio posibleak**

**L.— Lehenago aipatu diguzun etsaiari erretagordiatik erasotzeko posibilitatea, oker ulertu ez badizut, Agirre lehendakariak barkuak lortzeko baldintzak mugatzen zuen. Eta ez zituen lortu.**

K.O.— Gauzak berezi ditzagun. Bilbon geundela barkuak bagenituen, baina gertatu zena izan zen Agirrek proposatutakoa Errepublikako gobernuak atzera bota zuela. Esaten dute frantsesek ez zutela ametituko gure jendea trenez bere lurraldetik pasatzerik. Gero, Santoñako erorketan Agirrek proposatu omen zuen hogeitamar edo berrogei barku etortzea gure bila, baina frantsesek ez omen zutela utzi diote batzuek, beste batzuek berriz ez zirela etorri barkuak aldeztetik pagatzeko modurik ez zegoelako... Hori diote.

Baina jarri zaitez Bilbon geunden une hartan. Gaur dugun esperientziarekin, Gerra Mundialean aliatuek egin zituzten desenbarkuak, gerra bukatu baino hiru urte lehenago egindako desenbarko-itxurak, Dieppe-n eta Bordaleko ibaian gora ere sartu ziren, eta barkuak saboteatu. Guk Bilbon barkuak bagenituen, ez handiak, baina bai milaka gizon Lekeitiotik Ondarrura bitartean desenbarkatzeko haina. Infiltratu, gaur hogeitamar, bihar beste hainbeste, kontaktoak egin, enla-zeak... eta frantsesek ametituz gero Arnegitik edo Elizondotik jende pila bat pasa zenezakeen.

**L.— Baina ez zen egin holakorik. Eta gertatu zena, alderantziz, Santoñako errendizioa izan zen. Askok diote hura traizio bat izan zela. Zuri egindako beste elkarrizketa batean, aldiz, hura justifikatzen duzula ulertu dizut. Behar bada**

**orain hemendik, eta deus gutxi arriskatzzen dela, Santoñakoa traizioa izan zela errezegia delako.**

K.O.— Une hartan... Begira ezazu zer gertatzen den Nikaraguan orain, kontrekin negoziatzen. Nikaraguako presidentek arrazoin du, kontrak somozistak dira, dolar amerikanoak. Nikaraguan miseria egongo da nahi baduzu, baina gaur Nikaraguan, Cuban bezala, obreroak platerkada bat patata jaten du eta ogi puska bat: lehen obreroak ez zuen jaten. Eta hala ere, duten arrazoin guztiarekin, Nikaraguan behartuta daude burua makurtu eta kontrekin tratatu batera iristera. Kleroak eta kapitalak indar handia dute. Nikaraguako herri guztia zuti daiteke, nahi duzun guztia bidali dezakegu hemendik, laguntza, adiskidetasuna, baina kontrak ezin dituzte suntsitu, amerikanoak hor bait daude. Orain arte Nikaraguak eutsi dio, baina uste al duzu bakarrik atxikitzeko gai izan balitz tratatu hauetan sartuko zela? Desegin egingo zituen. Baina ezin dute, eta akordio batera iritsi nahi dute.

### **Santoñako errenditzea**

Gerra galduta geneukan. Artxandan ohar-tu nintzen, esan dizudan bezala. Eta gero Agirre lehendakariak esan zuenean beste



**«Informazio zerbitzua da garaipen baten %50a, neretzako».**

hura: «Ante estos crímenes, dónde están las altas jerarquías de la Iglesia?». Agirrerori hori entzundakoan... Ikusi behar zen etsaiaren materiala, han Artxandan kainonazoak, bonbardeoak, suteak... la biblia! Jendea erotu egiten zen. Gure gizonetako batek, Santurtziko pelotaria bera, zoratu eta atzera egiteko ordeztu aurrera egin zuen, eta bihar-monean aurkitu genuen arroka batzuen artean ezkutatuta, erdi lotan, eta erotuta.

Une hori iritsita, dena galduta zegoela ikusita, PNV hasi zen jesticioak egiten. Partidua diot, kontuz; Agirrerori ere esango zioten, baina beste gauza bat zen. Akordio batera iritsi beharra zegoen. Ez geneukan inolako konfiantzarik ez Asturiasko eta ez Santanderko ejertzitoetan. Gobernu zentralak ez zituen Eusko Jaurlaritzaren eskakizunak betetzen. Eta okerrik txikiena bilatu beharra zegoen.

**L.— Tratua zehazten ari ziren bitartean zuk horren berririk ez al zenuen?**

K.O.— Ez, guk ez genekien ezer. Baziren PNVko komisario politikoak, partidukoak ziren zenbait komandante, jakinaren gain zeudenak. Preso erori baino bi edo hiru egun lehenago izan nuen tratua berri. Nik eta beste askok jaso genuen berria izan zen Santoñara gindozela gero Santoñan barkua hartu eta Bartzelonara joateko. Ni Santoñatik gertu nengo. Badakizkizu gero portuko historiak, «Seven Price» eta beste barkuren bat etorri ziren, batzuk han sartu, gero handik atera behar berriro, eta abar.

**L.— Eta errenditu egiten zarete.**

K.O.— Ez zen beste erremediorik izan. Errendizioaren aurreko egunean PNVko EBB Laredoko hondartzan zegoen. Ni Colindresko zubia defenditzen nengo: Asturiarrek bolatu egin nahi zuten, eta nik galerazi behar nuen, falta ziren batailoi euskaldunak pasa zitezen. Halako batean iritsi ziren denek espero zituzten barku famatuak. Niri ez zidan inork deitzen, eta neroni joan nintzen, «ea hemen batzuek alde egiten duten besteok bertan utzita» pentsatuz. Bergarako Unzetarekin egin nuen topo, EBBkoa bera, eta esan zidan: «Nosotros estamos cumpliendo con su deber, usted cumpla con el suyo». Denok sinesten genuen falta genituen unziai iritsiko zirela. Ez ziren iritsi, ordea.

Italianoak gurekin oso ondo portatu ziren, haiei esker zer bait jan ahal izan genuen. Han utzi behar izan genituen armak, kristo guztia negarrez. Gero iritsi ziren fazista espainiarrak eta han izorratu zen dena.

### **Errendituta, jende garbiketa**

**L.— Jende askok egin al zuen ihes?**

K.O.— Bai. Neronek ere alde egin nahi izan nuen, italiarrak han egotearen tranpa ikusita, lehen aipatu dugun Gorroño goitiarekin, Eibarko Sarasketa komandantearekin, Zelaia irundarrekin, italiarrak joatean zer

## «Benetan grabea Bilbo entregatzea izan zen, arma, makineria, lantegi eta guzti».

gertatuko zen ohartuta. Handik egun gutxitara hasi zen herrietako jendea etortzen, herri bakoitzeko jendearen bila, «fulano de tal, fulano de cual», eta hartzen zutenari «paseoa» ematen zioten, afusilatu, alegia. Irungoak ere etorri ziren, ez dut esango izenik...

**L.— ...oraindik norbait bizirik izango bait da...**

K.O.— ...bai, jakina, badakite beraiek ere. Altabozetetatik hasi ziren deika: «Cristobal Errandonea, Nicolás Guerendiain, Pedro Ordoqui... que se presenten ante las autoridades de su pueblo». Aurreko egunean, ordea, rekete konpainia batzuk etorriak ziren, eta tartean Irungo lagun batzuk ere banituen, elkarrekin eskolan ibilitakoak. Batzuk oso gaizki portatu ziren, baina beste batzuk ondo ere bai, eta Blas izeneko baserritar batek esan zidan: «Deitzen badiate, hi ezkutatu, garbituko haute eta». Ni ezkutatu egin nintzen. Kristobalek gerran aurrera segi zuen. Nikolas Santanderren zegoen, eta enkargua bialdu nion, inola ere ez presentatzeko. Baina oker nengoela uste zuen, «oso gustora ikusiko ditut Irungoak, eta haiek ere pozik hartuko naute». Hala presentatu zen, eta hala akabatu zuten.

Santoñakoa beste erremediorik ez zegoen, lehen aipatu ditugun faktore guztiak kontutan hartuta. Santoñan bezala izan ahal izango zen Santanderren, edo beste edozein

tokitan. Imajinatu ezazu segitzen dugula gerran, Santanderren borrokatu, Asturiasen borrokatu, hantxe, santanderinoak, asturianoak eta euskaldunak. Sekulako garbiketa, ez janaririk, ez itxurazko hornidurarik. Eta segi hala ere. Baina momentu batean errenditu beste biderik ez duzu. Bandera zuria atera parlamentatzeko, eta esango zuten «baldintzarik gabe». Santoñako tratuan, aldiz, kondizioak paktatu ziren, gero bete ez zituztenak, hori da egia.

**L.— Eta Santoñan geratu zirenen eta barkuetan atera zirenen arteko aukeraketa egokia izan al zen zure ustez?**

K.O.— Egia esan, atera zen jendea atera beharrekoa zen. Jakina, haien aldamenean askoz jende gehiagok atera behar zuen, baina ez zuten utzi. Troncosok esan zuen «¡NO!» eta ez zuten utzi.

### Gakoa: Bilbo errenditzea

**L.— ANVk ez zuen onartu Santoñako tratua, eta zuk justifikatu egiten duzu, Kepa...**

K.O.— Nik ez diot haren alde nagoenik, errealista naizela diot. Irun galduta «Norte» delakoa aidean geratu zen. Gero Bilbo galduta, zer eginik ez zegoen. Gerran beti gertatzen bait da une batean atzeraka doanak esponja botatzeko ordua. Begira Iran eta Iraken artekoa egunotan. Nik esaten dudana da Santoñako tratua edo dena delakoa izan ez balitz okerrago izango zela. Bizi asko salbatu zen, nahiz eta afusilaketa ikaragarriak izan.

Baina Santoñakora itzuliz, benetan gauza grabea Bilbo entregatzea izan zen, makineria, lantegi eta guzti. Atera ziren makina batzuk, Bilbotik Santanderra bitartean mordo bat ikusten zen bide bazterretan, fresado-

rak, rektifikadorak eta abar, kamioietan zeramatzatela abioek ametrailatuta. Baina begira: gerra edo egiten da edo ez da egiten. Materiala ateratzerik ba al dago? Atera, bada, edo bestela puskatu. Labe Garaiak eta beste... gero ondo gelditu direla? Behar bada. Baina han etsaiak sekulako makineria eskuratu zuen.

Bilbo errenditzea, hura izan zen izugarria. Jendea garbituko zuten, bonbardeatuko gintuzten, baina Bilbon erresistitu zitekeen gehiago. Agoanta dezagun, Trutziozeraino nahi baduzu, hortik aurrera ez da-eta gure Herria, baina eutsi diezaiogun hemen, hil gaiten behar bada trintxera honetan, baina ez armak entregatu. Eta armak entregatu egin ziren. Ez dakit Bilboren errenditzearen historia ezagutzen duzun.

**L.— Egia esan, gehiegi ez.**

K.O.— Eskuizkribu bat erakutsiko dizut, oraindik argitaratzeko dago. Bilbo entregatzerakoan milaka fusil ametrailadore entregatu zen, eta milaka fusil, fazisten eskuetan, eta entregatzerakoan haiekin txanpaina edan zen. Eta batailoi osoak errenditu ziren!

### Ahaztu nahi diren abandonokoak

Irakurriko dizut liburu honetako pasarte bat: «A su vez Ramón Urrutia manifestó que al saber por Secun que aquella noche partía el 'Ciscar' con personal civil para Francia, decidió enviar allí a su señora y a su hijita. Al efecto, se dirigió con ellas al puerto de Santurce, incluso subió a bordo a acompañarles. Una vez acomodadas en el camarote y despedirse, uno de los marinos del buque le dijo que los hombres tenían que ir sobre cubierta. Le extrañó esto y respondió que él no salía para Francia, sino que se quedaba en Bilbao. Al salir a cubierta se encontró con Durañona, secretario de la Marina Auxiliar de Euzkadi, y éste le comentó si no se quedaba en el barco. Al replicarle que no había entrado en sus cálculos el huir, instió aquél diciendo que no fuera primo y que se quedara, pues lo mismo habían hecho Ibar-guren, Gerrikaetxebarria, Unzeta, Bengoa, Mendiguren, Orube, Robles, Azaola, Renteria, etc. Justamente indignado por el proceder de aquellos excelentes patriotas, tomó el coche y rápidamente se dirigió a Bilbao con objeto de ver la forma de impedir aquella salida. He aquí por qué vino a solicitar nuestro apoyo, y su exaltación e indignación eran muy justas y naturales.

Llamamos al Carlton inmediatamente, Secun y yo. Entramos en salón donde se hallaba reunido el Gobierno en pleno, excepto el consejero Espinosa que se encontraba en Francia. Llamamos aparte al Presidente, expusimos detalladamente cuanto sabíamos, y se resistía a creerlo, pidiéndonos nombres



**Batalla hasi aurretik Eliodoro de la Torrerekin. Prismatikoduna, Igiñiz tenientea.**

de todos aquellos que nosotros suponíamos se iban a fugar. Al conocer quiénes eran los que huían se emocionó visiblemente, rogándonos que sin pérdida de tiempo saliéramos hacia Santurce y en su nombre dijéramos a los que marchaban que abandonaran el barco, que pensaran un poco en la transcendencia del acto punible que iban a realizar, y sobre todo que tuvieran muy presente que el Gobierno se preocupaba de todos y cada uno de los ciudadanos vascos, y principalmente de quienes habían ostentado cargos de responsabilidad, y que además imitaran el proceder del Gobierno, que como veíamos permanecía más unido que nunca en su puesto. Nos despedimos confiándonos el éxito de nuestra gestión y así salimos».

Eta hola dena. Diruak eta bitxiak hartuta.

**L.— Argitaratuko al da sekula guzti hori?**

K.O.— Nik ezetz esan dut. Oraindik bizi dira protagonista batzuk, eta abertzale handi bezala ageri direnak. Betiko kakoarekin egiten dugu: nori egingo dio mesede liburu hori orain argitaratzeak?

Baina Santoñakoa baso bat ur da itsasoaren erdian. Bilbon 30 batailoititik gora entregatu ziren, eta horiei ezer ez gertatzeko baldintza izan zen hainbeste kamioikada arma ematea. Horiek entregatzera joan zirenak txanpaina edatzen aritu ziren fazistekin. Egia beti da ona, baina badira egia esan ezin direnak. Hori bota zidaten niri Frantziak traizionatu gintuela aurpegiatu nienek: «Zaude isilik!», «Baina ez al da egia esan dudana?», «Oui, mais il y a des vérités qu'on ne peut pas dire!». Badira egia esan ezin direnak.

## Gerra bukatuta preso

**L.— Santoñakoarekin bukatu zen gerra zuentzako, eta galeraren ondoren jende garbiketa izugarria izan zen.**

K.O.— Izugarria izan zen, bai. Bilbon, Aste Santuko hiru egunetan, 186 lagun afusilatu zituzten, eta «garrote vil»ez beste hamaazazpi edo hemezortzi. Burgosen ere sekulakoak egin zituzten. La Fuente teniente koronelarena gogoan dut: Francoren promozio berekoa zen, eta Larrinagako eskilaretatik behera «Franco, traidor!» oihukatuz zihoan, kulatazoka txiki-txiki egin zuten, eta aulki batean eraman zuten afusilatzen. Larrinagako presondegian hesi bat zegoen, eta jendeak salto egiten zuen hesi gainera erori eta hantxe garbitzeko. Haietako bat, hesiko burdinetan iltzatuta, kamila batean eraman eta silan lotuta afusilatu zuten.

**L.— Ez gara luzatuko gartzelako bizi-moduarekin, Kepa.**

K.O.— Nahi duzun bezala. Baina ez nuke aipatu gabe utzi nahi, ni bezala nere gura-



*Agirrereren hiletan Ordokik eraman zuen zazpi euskal herrietako lurra.*

soak eta bi arrebak ere gartzelan egon zirela. Hau, dena dela, abertzale askori gertatu zitzaion.

**L.— Hemengo gerra bukatuta berehala hasi zen Europakoa. Carlos Blasco Olacetaren «Dialogos de guerra. Euskadi 1936» liburuan kontatua dauzkazu espetxetik ihesi egin eta Gernika batailoirekin Estatu Frantseseko lurretan zehar egindako ibilerak. Hemen laburtuta berederen aipatzea merezi luke.**

K.O.— Larrinagako espetxetik ihes egiteko saio bat egin nuen, baina alferrik —sekulako palizak eman zizkidaten ondoren— eta Burgosen ere ezin zen ezer egin. Espetxe zentrolean banituen zenbait lagun, presoak, bulegoetan zeudenak eta Santoñara joateko zerrendetan sartzeko eskatu nien. Lortu nuen Santoñara eramatea, eta han aurkitu nintzen lagun zaharrekin, horien artean Sasetako komandantearen anaia Martin eta Lezearekin. Santoñako presondegian zerbitzu guztiak gudarien esku zeuden, eta espedienteak berek maneiatzen zituzten, abisoak apaizaren bidez guri paseaz.

## Eta ihes luzeari ekin

Lezea zegoen obretako buru, Alderdiak aginduta. Lau ertzetan ametrailadoreentzako txokoak eraikitzen ari zen taldean sartzeko eskatu nion, eta handik hasi nintzen goardien ohiturak aztertzen. Nafarroako Diputazioko injinari izana zen Monzonekin harremanetan sartu nintzen, eta Eusko Indarrako Sanchez izeneko baten —ANVkoa bera ere— bizarra kentzeko brotxa eta makinilarekin iheserako paketea prestatzen hasi ginen. Apaizek azukre-koxkorak ekarri zizkiguten. Monzon, Karrantzako gazte bat eta hirurok egingo genuen saioa, ostiralez, platerak garbitzeko geneuzkan hiru minutue-

tan. Bezperan, ordea, Monzon gaisotu egin zen eta biok bakarrik gelditu ginen.

Ostiralean, platerak garbitzeko orduan, ateruntz joan ginen, eta soldaduari esan genion ofizial batekin hitzegitera gindoazela. Hurrengo soldaduari ere ohizkoa zen beste lan batera gindoazela esan, eta aurretik bakarrik geneukan zubitxo bat pasa, atea, errepidea zeharkatu eta inguruko zingiratan murgiltzea. Ur azpitik arnasa hartzeko kainabera batzuk generamatzen.

**L.— Filmeetan bezala, alegia...**

K.O.— Bai, baina guri oso zerbitzu handia egin ziguten. Gero, ohartu zirenean, pare bat egunez ibili ziren gure bila, eta hotzak akabatzen egon behar izan genuen uretatik atera gabe. Halako batean, halere, eguzkia atera zuen eta hondartzatik barna joan ahal izan ginen, itsasora hurbildutakoen artean nahastuta. Ajo izeneko herrian organizatu ginen, mendian gudariak utzitako bonba eta fusil kulatagabe batzuk aurkitu eta frontera aldera abiatu ginen. Sasi-muturrak jenez eta egarria kentzeko ezpainak gaztain-ostoz igurtziz ibili ginen egun askotan.

Oiartzunen geunden 31. egunean. Guardia civilekin eta reketeeekin kontru batzuk izan genituen, baina onik atera ginen, eta Piko-keta eta Erlaiztik barrena, San Antongo erreka pasata, mugara hurbildu ginen. Ba-

**«Burutzea agindu zitzai-gun ekintzetako bat Santurtziko Campsa lehertzea izan zen».**



rranko hartan zegoen karabineren koartelean gertatua ez dut sekula ahaztuko. Han militarrek zeuden. Gauean soldadu bat atera zen zerbait garbitzera, justu ni mugitzen nintzen unean: aurrez aurre egon ginen segundu batzuetan, eta ez nekien tira edo ez tira. Soldaduak ordea ez zuen alarmarik eman. Zergatik? Guretarra izango zen, behar bada.

Mugara iritsita, ezin ginen karreteratik pasa. Uretan sartuta, zubira iritsi ginen eta han zeri heldurik ez geneukan. Nerekin zihuan mutilak ez zekien igeri oso ondo, eta hots pittin bat egin zuen. Tiraka hasi ziren, bai guk ere granadak jaurtikiz erantzun. Nere laguna bazterrean harrapatu zuten eta bertan garbitu ere. Une horretan nindoan ni Endarlazako zentraletik gora, artean lur espainolean, nolabait esateko. Goizeko hamarretan heldu nintzen Biriaturko lehen baserrira.

### Alemanen okupaziopean

**L.— Ipar Euskadin ere ez zenuen ordea askatasunik lortu, zeren eta Gurs-eko kanpora eraman bait zintuzten.**

K.O.— Eusko Jaurilaritzako agintariak saiatu ziren ni askatzen, baina Behobiako jendarmeetako tenienteak ez zuen onartu. Gurs-eko kanpotik ere ihes egin nuen, eta mendiz iritsi nintzen Arruta-Sarikotara (Baxenafarroako Amikuze eskualdean dago). Hango baserritar batek eman zidan lana eta alemanekin frantsesak gerran sartu zirenean Lannemezan-go arsenalak eraikitzeke ekipoarekin bidali ninduen Eusko Jaurilaritzak.

Han geundela sinatu zuten armistizioa frantsesek alemanekin. Sekulako desorganizazioa izan zen frantsesen artean, militarrek kobardetuta zeuden. Subfusil eta esku-granada batzuk hartu eta atera ginen handik. Alemanak iritsi ziren ordea, eta ihesi egin beharraren poderioz sakabanatu egin ginen. Gero mugako herri txiki batean egon nintzen, morroi bezala lanean. Huescako Plan herritik barrena pasa eta Bermeora iristea zen nere asmoa. Baina tarte horretan hiru iheslari polakorekin egin nuen topo: bata gaiso zegoen eta nere gain geratu zen beste biak Espainiara pasatzen ziren artean. Hala moztu zen nere plana eta hasi nintzen Erresistentziarentzako lanean, enlazetan. 1940 bukaera aldean.

**L.— Informazio bilketan arituko zineten batik bat...**

K.O.— Bai. Langile espainolak zeuzkaten lanean Pirinioetako zentraletan alemanek, eta haien bidez jakiten genituen beren berriak, zenbat ziren, beren trenak noiz pasatzen ziren, eta beste. Gure jendeak horretan bizia arriskatzan zuen. Gero piskanaka sabotaei ekin genien. Aluminio-hautsa egiten zuten lantegiak lehertu genituen, adibidez.

### Lehen sabotaiak eta makisak

Gerrillero espainolak ere organizatzen hasi ziren, baina guk ingelesekin segitu genuen funtzionatzen. 42an sabotaietan aritu ginen. Zentralak, trenbideetako posteak, edo alemanzaleei dirua kentzea. Hasieran inor ez hiltzen saiatzan ginen, alemanen mendeak beldurgarriak zirelako. Artean ez zen garaia. Baina garaia ere iritsi zen. Egun batez Arreau eta Bagnères de Bigorre arteko mendietan bildu ziren 200 bat gerrillari espainiar, eta agindutako puntuan utzi nituen. Orduan atera zuten nere arrastoa alemanek ere, eta detenituta eraman ninduten. Orduko torturez hitzegiteak ez dut uste merezi duenik. Sinetsi ezazu: alemanak espezialistak ziren horretan. Biharamonean, harrapatu zituzten bi kapitain eta ni afusilatzen generamatzen, Peyresourde-ko lepore. Mendian behera amilduz egin genuen ihes nik eta nerekin lotuta zegoen kapitainak. Bestea garbitu egin zuten.

**L.— De Gaullek 1943an eman zuen mendian ezkutatu eta Erresistentziari ekiteko ordena.**

**«Bilbon 30 batailoitatik gora entregatu ziren eta horiei ezer ez gertatzeko hainbeste kamioikada arma eman ziren».**

K.O.— Egia da, baina ordurako baziren makisetan euskaldunak bezala espainolak. Fronte bakarra osatzeko saioa frakaso bat izan zen, eta hasierako taktikara bihurtu ginen. Alemanen errepresaliak ikaragarriak dira. Dordogne-ko Corrèze-n gogoan dut 103 gizon urkatu zituztela, eta Auradour sur Glanne-ko biztanle guztiak akabatu zituzten; hura agindu zuen jenerala gaur empresa aleman handi bateko zuzendaria da.

Gero hasi ginen herriak askatzen. Herri batean sartzen ginenean, orduan ateratzen ziren kalera militarrek beren traje eta guzti, ondo plantxatuta, armarioan hartutako naltalina usainarekin. Gogoan dut Lourdesen nola sartu ginen, malkotan, Bilbon edo Donostian noiz desfilatu ahal izango genuen ametsetan. Unión Nacional-eko espainolekin geunden artean, eta halako batean Bañónara deitu zidan Heliodoro de La Torrek.

### Makisetako euskaldunak bildu alde

Hauek Aire sur l'Adour-eko hoteltxo batera joan ziren alemanetatik ihesi. Han espl-

katu ziguten plana. Alemanek ere jakin zuten non ziren eta bonbazoka sartu ziren, berrogei bat lagun garbituz; ordurako, ordea, alde eginak ziren Eusko Jaurilaritzakoak, Pepe Mitxelenak bere zerbitzuen bidez alemanen planak ezagututa.

Unión Nacionaletik ahalik eta euskaldun gehien ateratzea zen gure lana, baina kontuz ibili behar zen, haiek segituan akabatzen bait zuten jendea. Zaila zen jokua, eta haien jefeei esan nien Eusko Jaurilaritzak batailoi bat osatu nahi zuela, hori bai, UNEren gidaritzapean. Hala ere euskaldun asko lehengo lekuan geratu zen, taldeetan sortutako adiskidetasuna zela medio.

Hala, piskanaka, 1944ean, makis guztiak frontera kontzentratzen hasi ziren. Eta Lourdesen egindako bilkura batean, komandante batek argitu zizkigun zurrumurruak: Nafarroatik sartu eta Andaluziara joatea zen plana, hango gerrillarekin harremanetan sartzeko. Jaurilaritzak, aldiz, mugako oso informazio ona zeukan, eta bazekien gauzak nola zeuden. Alternatiba bat proposatu genuen guk: Endarlazatik sartu, Aiako Harrietatik igo eta Pasaia eta Donostia hartu, aldi berean desenbarko bat eginez. Euskadiko Errepublika jasotzea zen asmoa. Gauzak okertzekotan, erretirada erreza zen.

**L.— Ez zuten zuen planteamendua onztat hartu, noski.**

K.O.— Erakutsi genien frontera nola zegoen, Nafarroan iratzeek ere txapel gorria zeukatela, Nafarroako jendea ez zegoela horretarako prest, eta guri laguntzeko prestatuak ez baziren, haiei, kanpokoak izanda, baserrietan azaltzen baziren hondamendia izango zela. Sozialista eta komunista euskaldun batzuk ere ohartzen ziren horretaz, baina disziplinaz edo beldurrez ez zuten deus esaten, kontra jartzen zenari bi tiro ematen bait zizkieten.

### UNETik aterata Frantses Armadara

Azkenean UNETik ateratzeko agindua eman zigun Jaurilaritzak. Ez zen erreza, zeren eta haiek 30.000 ziren eta gu 300. Azkenean tren bat bidali ziguten. UNEko komisario politiko batek eman zuen bere hitzaldia. Nik nerea eman nien, esanaz Jaurilaritzaren aginduak segitu nahi nituela, eta honen eritzi ez zela beste aldera pasatzeko momentua, alemanei egin behar zitzaizela borroka, eta norbera zela gelditzea edo gurekin etortzea erabaki behar zuena. Zazpi geratu ziren.

**L.— Eta hortik alemanen kontrako gerrara. Nola sartu zineten Armada frantsesean Gernika Batailoia izanarekin?**

K.O.— Armada frantsesa 8. Errejimentu mixto marroki-atzeritarra antolatzen ari zen, eta gure izenak ematerakoan, Borden, hango koronelari eskatu nion fitxa ba-

koitzean jarri behar zuela gure alistamendua etorkizunean gure Gobernuak eta frantsesak burutuko zituzten akordioen mende geratzen zela. Eztabaidatu ondoren idatzi egin zuten.

La Rochelle eta Verdun aldean ibili ginen. 30-40.000 aleman zeuden han, Francok bialdutako txokolate, tabako eta lataz ondo hornituta. Gero «40. koto» deituan aritu ginen, Pointe de Gave-n. Gogoan dut nola agindu ziguten artilleri postu batzuk gureganatzea. Beharrezko mapak eta denetik baguenen, baina neri beti gustatu zait aurretik deskubierto bat egitea, lehen ere esan dizudanez. Horrela jakin genuen abioien argazkietan azaltzen ziren kainoiak egurrezkoak zirela, eta baita minaz jositako tranpa bat zeukate-la ere. Abisoa emanda kasorik ez ziguten egin, eta hala lehertu zen gure ordeztaldu zuten batailoio marrokiarra.

Odol asko isuri zuten euskaldunek alemanen kontra. Ikusgarria zen, hala ere, gure mutilen portaera, frontean, «Gora Euskadi!» oihuka. Duela gutxi hil berria da gure kapeilau izandakoa, Iñaki Azpiazu, benetakogizon handi bat, gudari guztien artean, uniforme berdinez, gurutze batek bakarrik bereiz-

**«Soldaduak ni ikusita ez zuten alarmerik jo. Guretarra izango zen behar bada».**

ten zuelarik. Gure azken ekintza trenbide ondoan zegoen fortifikazio izugarri bat izan zen. Gure aurretik bialdu zuten Leclerc batailoia tanke eta guzti saiatu zen, baina alemanek luraren nibelean tiratzen zuten eta birrindu zituzten. Abisinioek ere ez zuten deus lortu. Deitu ziguten, eta erasotzeko agindu ziguten: arratsaldeko bostetarako hartuta egon behar zuten, eta ezin genuen atzera egin %70 baino baja gutxiagorekin. Egun horretan presorik ez zela izango adierazi zidaten.

### **«Gernika» batailoien ohorea**

Gerra bukatuta zegoela esan daiteke, bi egun lehenago Berlin eroria bait zen. Hala ere, ordura arte ongi jokatu genuela eta Euskadiren izena goian utziko genuela erantzun nien, aldi berean operazioa ondo ateratzekoan zortzi egunetako permissioa eskatuen, Euskal Herrira joateko. Jose Antonio Agirreren telegrama bat ere hartu berria genuen, animoak emianaz. Oso bataila gogorra izan zen, eta zauritu asko izan genuen, bai-

na azkenean Karlos Igiñiz tenienteak bandera nazia kendu eta ikurriña ipini ahal izan zuen. Material asko hartu genuen, eta hountz bidali, gordetzeko. Frantsesek preso alemanak hil ez zitzaizuten ere gogor egin behar izan genuen: batzuk ageri dira Jose Antonio Agirrerekin egindako argazki batean.

**L.— Aipatu izan duzu De Gaulle bera etorri zela zuek agurtu eta ikurriñari ere agur egitera.**

K.O.— Montalibet-eko aireportuan izan zen, eta Agirre lehendakaria ere han zegoen. De Gaulle zen denen buru, eta soldaduei errebista pasatzerakoan minutu batez egon zen ikurriñari saluoa egiten. Brindis bat izan zen gero, eta ni joan egin nintzen, hura naftalina usainezko ofizialez beteta ze-



*Emaztea atzean, Iñaki Azpiazu eta Intxausti kapitainarekin.*

goelako. De Gaullek deitu eta orduan esan zidan sekula ahaztu ez dudana hura: «Frantziak ez du sekula ahanztiko bere lurra askatzeko euskaldunek egindako borroka». Ikusi duzu hitz haiek haizeak norat eramantien... De Gaulleren hitzak frantsesei aurpegiatzeko aukerarik ez dut tamalez falta izan geroztik. Esan behar dut, baita ere, gure koronelari eman zioten Gerra Gurutzea berak hartu eta muin eman ondoren Agirreri eman ziola.

Chodzko koronel hau poloniar jatorrikoa zen, Poloniako erregeen familiakoa. Bere familia alemanek akabatu zioten. Gobernu frantsesak gure gerrara bidali zuen, frontearen alde frankista ikuskatzera, eta Gernikako txikizioa ikusi zuenean gehiago ezin

agoantatu eta Frantziara itzuli zen. Berari De Gaullek medaila hura eman zionean, Agirre lehendakariarengana joan eta esan zion: «Lehendakari jauna, medaila hau Gernika batailoio euskaldunen adorea dela medio irabazi dut. Zuri ematen dizut, zuen herria askatzera goazenean Gernikako arborearen azpian jarri diezadazu, horretarako meriturik badudala uste baduzu».

### **1945eko lilura haiek**

**L.— Historiak geroztik buelta polita eman du.**

K.O.— Baina ez frantsesen aldetik bakarrik. Madrilen ibili zen, gerra garaian, Atleek laborista, «Ingalaterrak sekula ez zaituzte abandonatuko» aginduz. Bere kontrario Churchill kontserbadoreak esaten zuen: «Fazismoa pertsegitutako dugu dagoen azken metro karraturaino». Eta Atleek gerra ondorengo hauteskundeetan: «Churchill-i botoa ematea Francori botoa ematea da». Laguntza guztia agindu zien Atleek errepublikanoei Franco botatzeko, Prieto sozialistari agindutakoak hor nonbait idatzita daude, baina agintera iritsi eta berehala hasi ziren pasatzen Hendaia lan espainolak Britainia Handi aldera. Protesta egin zuten espainolei hala erantzun zien: «Espainiako arazoa espainolen artean behar duzue konpondu».

**L.— Eta Montalibet-ekoarekin bukatu zen zuentzako gerra, eta Armada frantsesa.**

K.O.— Esan behar da Indotxinara bialdu nahi izan gintuztela. Guk ezetx. Alemania okupatzera eramaten ere saiatu ziren baina guk garbi adierazi genien guretzako gerra bukatua zela. Bitartean, entrenatzen segitzen genuen, benetan buruan genuena laster burutu ahal izango zelakoan. Euskadi askatzeko borroka gainean zelakoan, alegia. Indotxinara joateari uko egindakoan, Drülle jeneralak desmobilizatu egin gintuen, 1945eko azaroan, hiru hilabetetako permissioa pagatuta.

Garai horretako beste gertakizun bat ez nizuke aipatu gabe utzi nahi, gerran gure aldamenean erorita bizia galdu zutenen oroitzapenari bait dagokio. Herri guztietan erai-ki ziren hildakoei omenezko monumentuak, eta gureak ahaztuta gelditzeko arriskua ikusten genuen, askatasunaren alde bizi eta hil ez balira bezala. Frantziar hildako gure gudari guztien ikur bezala bosten izenak ipintzea pentsatu genuen, Hendaian, gerrako azken egunean hil zirenenak hain zuzen, 14-18ko monumentua berriztatu behar zela aprobetxatuz. Alkatea eta Anciens Combattants-etakoak ados zeuden, baina ez ordea alkateordea, oso gogor kontra zegoena. Nik orduan konstruktore baimena atera eta obren lehiaketan presentatu nintzen, irabaziz.

Ezin nuen harria Hendaia inguruetan landu, boikoteatzen saiatuko zirela esan bait zidaten. Elizondo inguruan prestatu nuen dena, eta Hendaian bitartean zimentuak erakitzen genituen. Inauguraketa baino egun gutxi lehenago pasatu genuen monumentua puskaka, kamioiz. Ez genuela bukatuko zioten askok, baina guk erreflektore handi batzuekin gau ta egun egiten genuen lan. Izenak ipintzea justu inauguraketa baino ordu batzuk lehenago bukatu genuen. Han daude gaur bost gudari haien izenak, Gernika batailloian sakrifikatu ziren guztien ordezkari, eta han gordeko ditu historiak.

**L.— Horien ondoren beste aro bat hasten zen zuentzako, dudarik gabe.**

K.O.— Gerra bukatuta Parisa deitu zidan Agirre lehendakariak. Han aurkitu nintzen bera eta Ajuriagerrarekin. Hendaia etor-

konfidantzazko talde bat prestatzen ari nintzen, klandestinoki Hegoaldera pasa eta lanean jartzeko, pittin bat morala altxatzeko.

**L.— Konta ezazu pittin bat Hendaian egiten zenutena.**

K.O.— Hendaian ONUren babesean zegoen Errefuxiatuen aldeko Batzorde baten itzalean kamuflatu ninduten. Nik kontrolatzen nituen, beraz, mugaren inguru guzti hauetan ihesi pasatzen ziren guztiak. Errefuxiatuak hartu, espetxera joan gabe libratu, horiei lana bilatu eta abar egitea zen, eta aldi berean, armak berreskuratzeak agindua eman zidaten. Aldegingako batzuk lanean ari ziren, batzuk oso urrutu gainera, beste batzuk morroi edo basomutil moduan kamuflatuta, Garazialdean edo Alduden. PNVren agindupean zeuden hauek, eta beren buruzagi Abad, Landa eta Goienetxe.

hitzein nuen bakean lan egiten utzi ziezagun. Transmisioetako kapitain madrildar horri nortasun agiri gezurrezko bat egin genion, eta izena ipini genion Jose Antonio Agirre. Aste osoa pasatzen zuen baserrian, eta larunbatean Hendaia bere informazioa ekartzen zuen.

Amets bat zen. Inork ez zekien «morse»rik. Hendaia «Bidassoa» almatzenaren nagusia zen Kontxitik emandako hiztegi batean aurkitu genuen «morse» kodigoa, eta idazmakina zahar batean kopia pila bat egin. Eusko Jaurilaritzak jestio batzuk egin zituen, emisore bat ekarri zuen eta hamar gudari horiek Miarriztera pasa ziren, kontraespioitzako buru batek hor zuen txalet batera. Beste antena bat Donibanen jarri zen. Denbora hartan Rezolak alde egin zuen, Donostian detenituta zeukatenean, eta Iparraldera pasa zen. Bera ipini zuten irratien arduradun eta ni berriz armak berreskuratzea, lehen esan dizudan bezala.

## Hegoaldean erasotzeko prest

**L.— Asko bildu al zenituen?**

K.O.— Bueno, mordoska bat, pistola batzuk hemendik, fusil batzuk hortik... Halako batean jakin nuen komunistek beren arma stockak non zeuzkaten. Haiekin akordio batera iritsi nintzen —ez du merezi tratua zein zaila izan zen aipatzetik— eta milioi bat liberraren truke hamabi tonelada arma saldu zizkiguten: metrailetak, morteroak, ametrailadorak, lapitzak... Angoulemeko baso batzuetan zeuzkaten gordeta komunistek. Armak Angelun, Baionan eta Hendaia kontsuladua espainiarren aldameneko etxean jarri genituen.

Orduan eman zidaten «barrura» pasatzeko talde batzuk antolatzeak agindua. Taldeak prestatu genituen. Oraindik gordeta baditut gudariei borrokan segibeharra zegoela eta esaten zitzairen paperak. Berrogei gizonetako taldea prestatu nuen. Lehendabizikoa hogeia Hendaia ekarri eta batzuk itsaso eta besteak mendiz, beste aldera pasa nituen. Une hartan Joseba Elozegi zen gure mutilak gorde eta aldi berean objetiboak markatu behar zituena. Armak ere pasa genituen, pistolak, minak, bomba imandunak, eta abar. 1949 inguruan zen hau. Esana zitzaigun gure gudariekin erreztasun guztiak edukiko zituztela, kamuflatzeko, jateko, gordetzeko... baina jendeak beldur handia zuen. Gudariekin esaten zuten oso egoera larrian zeudela. Ezin ziren beren senitartekoekin kontaktoan jarri... gero ETAko liberatuek bezala. Baina gauzak ez zihoazen ongi.

**L.— Adibidez, esan dezagun etxerik ez zutela aurkitzen.**

K.O.— Hori da. Igoal restaurante batean sartzen ziren eta neskameek, konturatuta, jaten ematen zieten, hantxe, pistolak eta

Les TÉLÉGRAMMES URGENTS bénéficient de la priorité de transmission et de remise.

Tous bureaux vous renseignent utilement.

Faites-vous téléphoner chez vous vos télégrammes d'arrivée, vous les recevrez plus rapidement. Service GRATUIT pour les 10 premiers mots des télégrammes rédigés en français.

Tout bureau vous renseignera utilement.

Signification des principales indications de service télégrammes pouvant figurer en tête de l'adresse.

D.... = Urgent.  
AR.... = Remettre contre reçu.  
RC.... = Accusé de réception.  
Rp.... = Réponse payée.  
TC.... = Télégramme collationné.  
MP.... = Remettre en mains propres.

Exp.... = Express payé.  
Nuit.... = Remettre au destinataire même pendant la nuit (dans la limite des heures d'ouverture du bureau d'arrivée).  
JOUR.... = Remettre seulement pendant le jour.  
Ouv.... = Remettre ouvert.

Indications de service.

Dans les télégrammes imprimés en caractères romains par l'appareil télégraphique, le premier nombre qui figure après le nom du lieu d'origine est un numéro d'ordre, le second indique le nombre de mots envoyés, les autres désignent la date et l'heure du dépôt.

Dans le service intérieur et dans les relations avec certains pays étrangers, l'heure du dépôt est indiquée sous forme d'un groupe de 4 chiffres, les deux premiers exprimant l'heure de 0 à 24 et les deux derniers les minutes, le chiffre 0 étant utilisé chaque fois qu'il est nécessaire.

L'Etat n'est soumis à aucune responsabilité à raison du service de la correspondance télégraphique. (Loi du 29 nov. 1880, art. 1).

| ORIGINE.                                              | NUMÉRO. | NOMBRE DE MOTS. | DATE. | HEURE DE DÉPÔT. | MENTION DE SERVICE. |
|-------------------------------------------------------|---------|-----------------|-------|-----------------|---------------------|
| 62 LONDON                                             | 533/    | BI 44 28        | 1113  |                 | VIA RADIOERANCE     |
| FOR ORDOKI STOP PLEASE ACCEPT AND TRANSMIT OFFICIAL   |         |                 |       |                 |                     |
| AND GUDARIS BRIGAD ENTHUSIASTIC CONGRATULATIONS NAME  |         |                 |       |                 |                     |
| BASQUE GOVERNMENT PROUD THEIR HEROISM HAS CONSECRATED |         |                 |       |                 |                     |
| HONOUR AND GLORY OUR PEOPLE GAINING DECORATIONS       |         |                 |       |                 |                     |
| NATIONAL FLAG MARKING UNFORGETTABLE DATE FOR BASQUES  |         |                 |       |                 |                     |

**Londrestik Agirrek bidalitako telegrama, Montalivet-en egindakoagatik zorionduz.**

tzeko agindu zidaten, propaganda eta abar egiteko mugimendu bat antolatu beharra zegoela. Gazte asko zeuden gerra ondoren ere alde eginda, eta horiek bildu beharra zegoen. Artean batailoia desmobilizatu gabe zegoen, ia lauhun lagun. Han zegoen Eusko Jaurilaritzako informazio zerbitzuen nagusia ere, Pepe Mitxelena. Eta eskatu zidaten konfidantzazko gizon batzuk hartzeko, komando batzuk prestatzeko.

## Jaurilaritzaren komandoak eta irratia

80 gizon antolatu nituen, eta «barrutik» beste hainbeste heldu ziren, horien artean Jesus Mari Retolaza. Talde hau Rotchild-en gaztelura joan zen, Paris inguruan, eta ofizial amerikar batzuek entrenatu zituzten hiru zupalau hilabetez. Denbora berean ni ere

Egia esan, armak biltzeko agindua baino lehen Euskadi Irratia antolatzeak agindua eman zidaten. Bazen Hendaian iheslari sozialista bat Miaja jeneralaren transmisio-buru izana zena, sozialista eta katolikoa. Tanteatu nuen, eta ea irratia gauzak gudari talde bati irakasteko prest zegoen eta berak gauza serioa baldin bazen baietz. Agirre lehendakariaren agindua zela erantzun nion, eta bera konforme.

Hamar gudari prestatu nituen horretarako. Mutilek sinatu zuten agiri bat zin eginez inori ez zitotela esango egiten ari zirenen berri, ezta sendiari ere, baserri batean sartu eta ikasi arte. Ainhoako baserri bat bilatu genuen, erdia Espainia eta beste erdia Frantzia duena. DSTko —«Direction de la Surveillance du Territoire», kontraespioitzako erakunde frantsesa— komisario nagusiarekin

gordeta. Hasieran laguntza bazuten, baina gero deus ez, jendea beldur zen. Bi hilabete pasa zituzten. Bi hilabete horietan ikusi nuen gauzak nola zeuden han, eta berriro honuntza ekarri nituen beren bizia arriskatzan ari ziren gudari haiek, berriro lehengo leketan lan egitera.

Bitartean, barruarekiko enlaze-lanak egiten segitzen nuen. Sozialistak, CNTkoak, errepublikanoak... denetik pasatzen ziren gure bidez. Mendiz eta itsasoz pasabideak antolatuta geneuzkan. Horretan esango dizut heroi ezezagunak enlaze horiek direla, egunero edo ia egunero bizia arriskatzen edozein —bai guretarra edo Madrilgoa, Bartzelonakoa, Valenciakoa, edo Valladolidkoa— hartu eta pasatuz. Horiek dira heroiak. Horiez ez da inor mintzatzen. Gu azken batean armatuta ibiltzen ginen, eta guardia zibila haina baginen. Baina gizon eta emakume hauek inork ez ditu aipatzen, bati eta besteari omenaldiak egin zaizkio baina hauei ez, hauek torturatu dituzte, txirtilatu dituzte, batzuek hitzegin dute, beste batzuek ez... Nor akordatzan da horietaz? Emakume bat partea kortsean ezkutatuta, edo gizon bat papera zapatan sartuta, baina armarik gabe, horiek dira meritua dutenak.

«Ihesi, sasi-muturrak janez eta egarria kentzeko ezpainak gaztain-ostoz igurtziz ibili ginen egun askotan».

Urte haietan Estatu Espainolean ziren inprimategi klandestino guztiak guk pasa genituen, puskaka, Franco Donostiara etorri zenean aidean bota zitzaizkion ikurriñak enlaze horien bidez pasa ziren. Izan da Santandertik mendiz mendi kamilan ekarri den jenderik. Eusko Jaurlaritza zen Estatu Espainoleko jendeekiko kontakto guztiak bideratzen zituena. Oraindik bizi da Iglesias sozialista, eta esplikatuko luke zenbat aldiz pasa genuen batetik bestera.

**L.— Gauza bat: zuk berriro zure mutilak Iparraldera pasatzen dituzunean, mugimendu hori erabat bukatu dela esan al dezakegu?**

**K.O.—** Talde armatuei dagokienez bai. Erresistentziak segitzen zuen propaganda eta enlaze mailan, baina talde armatuen asmoa hor bukatu zen. CNTkoek segitzen zuten artean. Komunistak ere hasi ziren gero. Gu haiekin hitzeginda geunden. Gertatu zai-gu garai hartan gauez talde bat pasatzen ari

garela eta hots bat entzun, ezkutatu eta guregandik bi metrotara pasatzen direla CNTkoak. Garai hartan antolatuta zen «Alianza Nacional de Fuerzas Democráticas» izenekoak.

### Santurtziko projektua eta komandoen etsipena

**L.— Komando armatuen gorabehera hori itxi aurretik, hala ere, behar bada mereziko luke magnetofonoa martxan jarri aurretik komentatu diguzun ekintza handi haren berri ematea.**

**K.O.—** Eman genituen hiruzpalau kolpeak gauza tikiak izan ziren, aipatzerik ez du merezi. Burutzeko agindu zitzaigun ekintzetako bat —nik ezezkoa eman niona— izan zen Santurtziko CAMPSAren leherketa.



1944eko udan, makisetan.

Hura lehertzea oso erreza izango zen guretzako, baina ondorioak ikaragarriak izango ziren, Santurtzi guztia lehertuko zen eta. Eta nik ezetz esan nuen.

**L.— Nork eman zizuen agindua?**

**K.O.—** Eusko Jaurlaritzako enlaze batek.

**L.— Enlazeak Jaurlaritzako agindua ekarriko zuen.**

**K.O.—** Ez dakit. Enlaze hura ezagututa... nere eritzia ez ematea nahiago dut.

**L.— Arazo inportantea da. Nork agintzen du komandoak prestatzea? Eusko Jaurlaritzak. Nork bidaltzen ditu barrura? Eusko Jaurlaritzak? Nork...**

**K.O.—** Kontuz. Eusko Jaurlaritzan bi edo hiru kontseilari ziren horren berri zutenak, horien artean Agirre. Eta barruan beste pertsona pare bat izango zen hori zekitenak, beren artean Ajuriagerra.

**L.— Orduko Jaurlaritzan kontseilari sozialistak ere baziren. Eta ondorioz, Jaurlaritzaren aginduak baino PNVrenak zirela pentsatu beharko dugu.**

**K.O.—** Begira: Eusko Abertzale Ekintzako kontseilariak ere ez zuten horren berririk. Agirrek berak ere taldeak bazirela-eta gutxi gorabehera jakingo zuen, baina ez dut uste gauzak xehetasunez ezagutuko zituenik. Hala izatekotan, Santurtziko Campsaren kasuan nere eritzikoa izango zela iruditzen zait.

**L.— Zuk ANVkoa izaten segitzen zenuen garai hartan.**

**K.O.—** Hori da. Kontutan eduki behar duzu ordurako Prieto hasia zela bere armiarma-sarea osatzen, monarkikoekin, eskuin guztiarekin eta beste. Sozialistak ez zeuden barruan inolako biolentziarik izatearen alde,

urte asko geroago emango zen «trañtsizioa» prestatzen ari ziren nolabait. Negrinen jendea bai, horiek biolentziarekin ados zeuden, baina Prietoren jendea ez.

**L.— Aginduak nork ematen zituen argitzea inportantea dela iruditzen zait. Logikoa izango litzateke koadrila batek muga pasa, gauzak egiten hasi eta erabat aldrebes egitea, edo dena gaizki ateratzea. Baina ez zen lagunarteko afera bat... Zuek norbaitek bialdu zintuzten, zerbaitearako.**

**K.O.—** Begira, gauza ez zegoen ondo organizatua. Antolamendu ona zegoen propaganda pasatzeko, enlazeak pasatzeko, arriskutan zegoen jendea batetik bestera pasatzeko. Baina ekintza armatueterako gauzak ez zeuden prest, oso berde zeuden.

**L.— Joko gaizto baten errezero tx-**



rrrez ez al zara gelditu sekula? Eman dezagun: Partiduko buruzagiek ikus zezaketela bazela jende bat oso bero zegoe-na eta ekintza gosez, eta horren aurrean jende horren agintea hartu eta pittinka desbideratu beharko zuela, eskuetatik aldegingo ez bazion.

K.O.— Ni ohartu nintzen ez zegoela armen-kin ekiteko batere prestakizunik, zerbait egiten bagenuen, han sartuta neuzkan hoge-ido hogeitamar komando horiek birrindu egingo zituela etsaiak. Eta martiri horien sakrifizioari probetxua aterako ziotela beste batzuek. Orduan nik esan nuen: ez! Argi bait zegoen, Santurtzin egitea proposatzen zitzaigun ekintza ikusita. Gaur ez dakit nola egongo den, aspaldian ez dut ikusi, baina orduan Santurtziko Campsako plano guztiak neuzkan eskuetan. Zenbat zisterna egongo zen han? Ez dakit xuxen, baina sekulako pila. Guretzako lan erreza zen, bat lehertu eta denak. Baina Santurtzi guztia joango zen pikutara. Guardia Civilaren koartel bat erasotzea gauza bat izango zen, logikoa, baina Santurtzikoan eroriko zen jendearen %80a geurea zen.

L.— Eta ez egiteko erabakia zeuk hartu zenuen.

K.O.— Hori da. Hartu nuen jendea eta buelta honuntza.

### Zerbitzu frantsesen konfidantza

L.— Zuen zerbitzu frantsesekin oso ondo konpontzen zineten. Ez al zen hori bera zuen tranpa?

K.O.— Esan beharra dago garai hartan zerbitzu frantsesetan ate guztiak zabalik genituela. Baina beste hau ere esan beharra dago: zerbitzu frankistek ere beren enlazeak bazituztela zerbitzu frantsesetan. Froga bat emango dizut. Egun batez Paristik nentorren trenez, 30 bat kilo pisatzen zuen ametrailadora handi batekin, Agirreren idazkari Durañonak erositako maleta handi batean sartuta. Ametrailadorak uzten zituen hutsu-neetan granadak sartu genituen, eta orotara 40-50 kilo ekarriko nituen maletan. Normalean Baionan edo Miarritzen uzten genituen holakoak, baina egun horretan zangoan min nuen —gerran zauritu nindutenetik eguraldiaren aldaketa garaietan-eta gertatzen zait— eta Hendaiara joan nintzen.

Jaitsi trenetik, hartu maleta bizkarrean eta banao. Jendarmeeek ezagutzen ninduten, baina agun hartan maleta irekitzeko agindu zidan batek. Nik ezetz eta berak baietz. Maleta irekitzen hasi zen eta esan nion: «Nik zabalduko dut maleta baina zure nagusiaren aurrean; bestela zeu izango zara hemen gerta daitekeenaren erantzule». Zerbait ulertu zuen eta abiatu gara jendarmeriara, maleta bere bizikleta gainean jarrita. Iritsi nagusiarengana, gainerako jendarmeei irten erazi

gelatik, eta ireki diot maleta: «Mon dieu, mon dieu! Nolaz ekarri duzu hau hemendik! Harma garraio klandestino da hau!». Deitu genuen Pauera, eta niri bakean uzteko agindua eman zioten. Ikusten duzu, beraz, agintari frantsesekin gaizki ez geundela.

Baina handik ordu erdira Irungo komandantzia bazekiten guztiaren berri: «Ordoki detenitu dute Hendaiaren ametrailadora pizu bat zeramala». Baina guk ere bageneukan gure enlazea Irungo komandantzia. Kon-sulatuan gure izpiak geneuzkan bezala.

### Amerikarrak eta ingelesak

L.— Hainbeste harreman zerbitzu frantsesekin, zerbitzu britaniarrekin, zerbitzu amerikarrekin... ez da harritzeko sare guzti horrek PNV bera lotzea bere erabakietarako.

K.O.— Dударik gabe lotu zuten, eta zenbat gainera. 1952 alderako garbi ikusten zen amerikarrek gero eta laguntza handiagoa ematen ziotela Francori. Hitz ederrak bai, Agirreren mezu itxaropentsuak ere bai, baina politikan dena gure kontra ikusten zen. Amerikanok lotzen zituzten frantsesak, amerikanok lotzen zuten Eusko Jaurlaritza, beti amerikanoen eritzia gailentzen zen. Eztabaida gogorrek eduki nituen Jaurlaritza-ren informazio zerbitzuetako burua zen Pepe Mitxelenarekin. Oso laguna nuen baina esan nion amerikanoeekin ez nuela lanik egingo, guri baino gehiago laguntzen ziotela Francori.

«Nere taktika beti hori izan da: etsaiaren lineak pasa, ikusi eta itzuli».

L.— Entzun izan diot adineko norbait kontatzen nola ekarri zuten behin atzerriko pertsonalitate bat eta mendian gazteak formatuta presentatu zitzaizkio-lar eta abar.

K.O.— Hori beste historia bat da, aipatzen dugun garai hau baino lehenagokoa. Noel Becket gobernu laboristaren lehendakari ordea zen Britainia Handian, eta bere semea diputatu laborista eta oso laguna genuen. Gure informazio zerbitzuek adierazten zitoten frankistek gure jendea afusilatzen zutela, sekulako torturak egiten zituztela eta abar. Baina bere kontsuladutik pasata informazioa oso goxatua iristen zitzaion.

Horregatik esan genion diputatu horri: «Prest bazaude, geuk eramango zaitugu, bertako jendearekin hitzegin ahal izango duzu, eta berriro geuk ekarriko zaitugu». Itzuli

osoa egin zuen, Hendaiatik muga pasata, Hondarribia, Donostia, Bilbo... Oso organizatuta zegoen itzulia, eta kilometrotik kilometrorra gure jendea aurkitzen zuen. Gauero bere parteak idazten zituen, eta gure korreen bidez bidaltzen genuen. Baina organiazioa ez zen PNVrena bakarrik, gehienak hala izango ziren, baina baziren sozialistak, eta ANVko mordoxka ederra ere bai. PCE eta CNTkoak ere bai. Hura zen Erresistentzia, eta denek kolaboratzen zuten Eusko Jaurlaritzarekin.

Geihago esango dizut. Hasiera batean, 1947-48an, enbaxada frantsesak korreo garrantziko bat zuenean, hura gure eskuetatik zehar pasatzen zen, frantsesek zeukaten ohizko korreetik kanpo.

L.— Zer gertatu zen lehen aipatu ditugun komandoetako jende harekin?

K.O.— Ekarki nituen honuntza, batzuk ezkondu ziren, beste batzuk Ameriketara joan ziren, beste batzuk Franco hil zenean itzuli ziren...

L.— Aipatu duzun izenetako bat Retolazarena zen.

K.O.— Kontuz. Rostchild-en gazteluan egon ziren gazte haietatik batzuk aritu ziren armak biltzen, lehen esan dizudanez. Baina barrutik etorritako jende honek ez zuen parte hartu barrura bialdu genuen taldean. Horiek muga inguruko baserri eta mendietan zeuden, noiz pasako zain. Gauzak gero okertzen joan ziren. Lehen esan dizudana: korreo eta enlazeetarako ondo, baina sabotaietarako gaizki. Horren frogarik onena da jende hau, gehienak PNVkoak eta beren buruzagiak denak Partidukoak zituztenak, abandonaturik gelditu zirela. Azkenerako zer janik ere ez zeukaten. Hasieran diru pittin bat ematen zieten, gero batere ez. Base-rietan lan egin behar mantentzeko, eta azkenerako goseak. Egun batean Leizaola joan eta guzti hura desegin zuen arte.

### Jelkideak eta yankiak lagun

L.— Pepe Mitxelenaren izena ere atera da behin eta berriz. Ez da gizon ezaguenegia.

K.O.— Pepe Mitxelena zen gizon bat kausaren alde erabat entregatua. Gure gerra denboran eta gerra mundialean sekulako lana egin zuen. Nobeletakoak diruditen pertsonaiak badira, CIAko buruzagiak eta abar, eta nere ustez horien artean katalogatu behar da Pepe Mitxelena. Ez zen etxetik kasik ateratzen, eta ateratzen bazen hori izango zen kontakto baterako. Sakrifikatua, gau eta egun bere lan horretarako prest. Pentsatu ezin ahalako zerbitzuak egin ditu Pepe Mitxelenak.

Gero amerikanok traizioa egin ziguten, eta horra, Pepe Mitxelenaz ez da inor mintzo. PNVko gazteek ez dakite berari buruz

deus, baina zaharrek badakite Mitxelena gabe Eusko Jaurlaritzaren gauza asko ezingo zirela egin. Jaurlaritzaren orduko prestijioaren %90a Pape Mitxelenaren lanari esker izan zen. Gero traizionatu egin zutela, amerikanoek eta besteek. Konfidantza handiegia eduki zuen amerikanoengan, Agirrek eduki zuen bezala. Begira zein ordain eman ziguten. Ni egona nago Pepe Mitxelenarekin eta CIAko buruzagirik handienetako batekin, lehen hitzegin ditugun komandoak antolatzen ari ginenean. Dena haiek ordainduta. Eta gero? Milioika dolar Francorenzako.

**L.— Ez zuen amerikanoei buruzko eritziarik aldatu Mitxelenak?**

K.O.— Ez. Hemen denok genuen konfidantza amerikanoengan. Konfidantzarik handiena Agirrek, eta kontaktorik gehiena Pepe Mitxelenak, bere zerbitzuengatik, eta dirua nondik zetorren ikusita. Baina orduan Churchill-ek ere esan zuen: «Dagoen azken metro karraturaino pertsegitutako dugu fazismoa». Begira gero Attler-ek zer esan zuen, zer agindu zion Errepublikako gobernuari eta gero ze nolako politika egin zuen.

## ETako iheslariak, alde berria

**L.— Eta hala ere nazionalista askok segitu dute amerikanoekin kolaboratzen.**

K.O.— Horixe segitu dutela, eta segitzen dutela gainera. Eta kobratuz. Hori beste upeleko sagardoa duzu, oso tristea. Hainbeste gudarik eman dute beren bizia, eta orain ordain hau ikusi beharra...

**L.— Eta egun batean ordurarte hain estuki bizitutako mundu batekin haus-tuten duzu. Dena utzi eta lanera, bizimodu normalera, nolabait esatearren.**

K.O.— Hori da. Esaten den bezala «erri-eta egin genuen» eta... Agirrerekin ez, Agirrerekin beti ondo moldatu nintzen. Ulertzen ninduela baina ez dimititzeko eskatu zidan, baina erabakia hartuta neukan. Beste alde-tik etorritako beste batzuekin mekanika lan-tegi bat jarri genuen martxan.

Hala ere kontaktoak banituen. Pentsa, Hendaia-ko komisarioa nere enlazea izana zen gerran. Norbait harapatzen bazuten muga pasatzen, detenitu eta espetxera bial-

«Ez, ez; esan zaie horretan ez sartzeko, eta entzun nahi ez badute orain ondorioak pagatu ditzatela». «Aizu, baina hauen gurasoak espetxean egon direla, afusilatuak izan direla, hau dela guk hainbeste denboran erein dugunaren fruitua, lagundu egin behar die-gula...». Eta alferrik.

Hala ere joan egin nintzen. Jendez beteta zegoen gela. Han zeuden mutil gizarajoak ere. Sartu, «gora bihotzak!» esan eta besarkada bana eman nien. Auzitegiko presidentek goitik «hoiek akusatuak dira, presidentzia hemen dago!». Eta erantzun nion: «Presidente jauna, hemen gauden guztion artean —eta horretan bera ere sartzan nuen— dau-den gizon bakarrak hauek dira. Zeren eta besteek, zaharrak direlako, gaisorik daudelako edo aberastu egin direlako, borroka utzi bait dute. De Gaulle jeneralak esan zidan Frantziak ez zuela ahantziko euskaldun-ek lur frantsesa askatzeko egindako sakrifi-zioa, eta ikusten dut nolakoa den ordaina: gartzelan sartzea». Presidenteak «kanpora, kanpora!» oihukatu eta atera ninduten. Han zegoen Telesforo Monzon ere, gazte haiei laguntzen. Eta esan zidan: «Ondo ari garela uste al duzu?». «Horixe ari garela ondo, hau da guk ereindako haziaren uzta berria». Eta besarkada bat eman zidan.

**«Heroi ezezagunak enla-zeak dira, egunero arma-rik gabe bizia arriskatzen. Nor akordatzen da ho-riez?».**

**L.— Franco hil baino lehenagoko ixto-rioak dira horiek...**

K.O.— Franco hil artean haiei lagundu be-harra zegoela uste nuen. Franco hilda, kon-bentzitututa nengoen Espainian hauteskunde libreak izango zirela, edo ONUren kontrola-rekin edo gabe, Euskal Herria libre izango zela, Errepublika iritsiko zela... gauza nor-mala, edo logikoa, hala hitzegiten zuten mi-la bider frantsesek, hala hitzegiten zuen Isi-doro-k, klandestinitateko Felipe Gonzale-zek... Baina Francok gauzak ondo lotuta utzi zituen, eta berak jarritako monarkia iritsi zen. Libertate puska bat bazen hala ere.

Baina ETAkoak egurra ematen hasi zire-nean nik esaten nien: «Behar dena da denak elkartzea, agindu digutena emango digute, orain ez da tiroka ibiltzeko garaia». Gogora-tzen naiz Hendaian Madariaga eta Krutwige-kin, eta haiek esaten zidaten «oker hagoela, Ordoki, hemen egurra ematen ez bada ez dutela haiek deus emango» eta ni kontra



Ni aldiz ez naiz Unibertsitatetik pasea, oso burugogorra naiz. Eta dena pikutara bidali nuen. Hori bai, Euskadiren alde borroka egi-teagatik laguntza beharrean zirenei lagun-tzen segitu nuen.

Amerikanoetara itzulita, Agirre ez zen gripez hil, desengainuz hil zen. Horrek jan zuen piskanaka. Amerikarrek atzera egiten zuten bezala frantsesek ere bizkarra ematen ziguten. Gehiago esango dizut. Bidault zen orduan gobernuburu frantsesa —gero OASen garaian-eta Aljeria frantsesaren alde saiatuko zen— eta gure alde zegoen erabat. Euskadi Irratiarekin bezala armekin beti la-gundu zigun. Heliodoro de la Torrererekin iza-na nago hura ikusten. Badakizu nork kendu zigun Euskadi Irratia? Mitterrandek.

du baino lehen neri deituko zidaten, goizal-deko orduetan ere. Gero ere, beti izaten zen zerbaitetan lagundu beharra. Muga itxita ze-goenean kontaktoren bat nahi baldin bazu-ten prolema handiak ziren, Monzon batek edo Rezolak salbokondutko bat lortzeko ere influentziarik ez zuten, eta neregana jo be-har zuten.

**L.— Eta halako batean ETAkoak azal-du ziren.**

K.O.— Egun batean ETAkoak azaldu zi-ren, bai, eta inork ez zuen haiekin ezer nahi, ezta Eusko Jaurlaritzak ere. Gehiago esango dizut. Julen Madariaga eta Txillardegia eta horien epaiketa iritsi zen, eta beren aboka-tuak eskatu zidan laguntzeko. Eusko Jaur-laritzak Baionan zuen ordezkariak esan zidan:

«Pepe Mitxelenari esan nion amerikanoekin ez nuela lan egingo, guri baino gehiago laguntzen ziotela Francori».

nengoen. Ez nuen sinesten traizionatuko gintuztenik. Erresistentzian elkarrekin egonak ginen, Isidorok berak esan zuen Anoetan «inclusive vamos a discutir de independencia».

### Franco hilda, ETA tiroka

L.— Isidoro ezagutzen zenuen, beraz.

K.O.— Bi edo hiru aldiz bakarrik ikusi dut, beretakoa bait zen, guk eraman eta ekarri bakarrik egiten genituen.

Gero ETAk bahiketak egiten segitzen zuen, eta jendea garbitzen, eta nik esaten nien «ez, ez, hola ez». Hori bera guk Frantziaren egina genuen, baina han alemanak eta Vichy-ko gobernua zeuden, eta hemen ez. Gobernu fazista bat zegoen nahi baduzu, baina pittinka Herriaren bultzadaz gauzak emanaz zihoazen. Nik nioen denok elkartu behar genuela, eta haiek, ETakoek, segi tiroka. Eta arrazoina izan dute.

ETakoek ez balute eraman duten politika gogorra egin, Francoren ondoren Carrero Blanco etorriko zen, bera baino okerragoa izango zena. Madrilen ere erresistentzia pittin bat izan da, Isidoro-eta, Carrillo eta bere lagunak ere bai, baina benetan indar egin duena ETA izan da. Denborak arrazoin eman die. Lortu dena ETaren presioa dela medio lortu da. ETAk hola kolpatu ez balu guk Eusko Jaurilaritzarik ez genuen edukiko, eta Felipe Gonzalez ere ez zen dagoen lekuan egonen. Gero, berriz, iritsi dira sozialistak gobernura eta begira zer ari zaizkigun egiten.

L.— Hala ere, orain arte entzun dizudanetik, abertzaleen artean halako akordio batera iritsi beharra sinesten duzu. Ez daude giroak horretarako.

K.O.— Gure artean adostasun batera iristen ez bagara ez gara aurrera joanen, alderantziz baizik.

L.— Baina noren arteko adostasuna?

K.O.— Abertzale guztien arteko adostasuna. Hasteko, akordio bat: Autodeterminazioa. Horretan denok konforme egon behar dugu. Gure Herriaren %70a baino gehiago da abertzale bozkatzeko duena. Baina horren barruan %20ak, Herri Batasunakoak, boto radikala ematen du. Beste %50ak, PNVk, EAK, EEK, biolentziaren kontra egiten du. Zergatik? Interesengatik. Nik baditut lagu-

nak orain dela 40 urte gaur nik pentsatzen dudana bezala pentsatzen zutenak; baina orain diote «bai, baina beti tiroka ez gara ibiliko». Batzuek aberastu egin direlako, besteak gaiso daudelako eta besteak zahartu eta ahuldu egin direlako, beldur dira, lehen bezain abertzale dira baina beldurrez.

Beste batzuek esango dizute: «Autodeterminazioa bai, baina Euskadi tikia da, eta hi-

ru edo lau dibisio ipintzen dizkigute militarrek eta ea nor mogitzen den». Ea munduak zer esango duen, ONU ere hor dago. Ez dut gogoan artikulua hitzez hitz, baina ONUko kartako atal batean hala dio: Herri baten gehiengoak Autodeterminazioa eskatzen badu eman egin behar zaio, nahiz eta Herri horren barruan Autodeterminazioa nahi ez duen atzerritar gehiengo bat egon.

## Au pont international entre Hendaye et Irun personne ne passe

De notre envoyé spécial Alfred Lomant

Hendaye, 27 février.  
(par téléphone)

L'ARRET du trafic ferroviaire est devenu effectif depuis ce matin. En effet, à la suite de la décision énergique du gouvernement français, les Espagnols, prenant les devants, ont fermé la frontière.

Au pont international, on pouvait voir les réfugiés espagnols qui, une fois ou deux par semaine, viennent chercher les colis familiaux que leurs parents restés au pays leur apportent. D'un côté et de l'autre du pont des barricades rouges interdisent l'accès. Ces pauvres gens, à grand renfort de gestes, essayent de communiquer.

Les nouvelles arrivent. Trois voyageurs français munis de passeports en règle ont été refoulés; au pont international, les Espagnols refusent le passage même aux voyageurs transitaires pour le Portugal, du moment qu'ils sont Français. Par contre, les autorités françaises acceptent l'entrée des voyageurs venant d'Espagne. Il semble néanmoins qu'un accord, un «modus vivendi» provisoire intervienne dans la journée. En attendant, les voyageurs qui devaient prendre, le 28, le bateau de Lisbonne à destination des Etats-Unis protestent bruyamment.

En ville, les réfugiés espagnols sont animés d'un immense espoir. Tous les cafés en regorgent, et c'est grâce à l'un d'eux que nous pouvons approcher le commandant Ordoki. Ce Basque, petit, jeune — 34 ans — et énergique, est un ancien commandant F.F.I. qui a participé, en compagnie des fusillés Garcia, Nunes et Castro, ses anciens camarades et amis, à l'organisation de la résistance et du maquis des Hautes-Pyrénées. Cet homme avait mis sur pied, en 1941

et 1943, la chaîne par laquelle des fugitifs s'évadaient de France. Il nous a confié ses déceptions et ses espoirs, et il nous a déclaré textuellement :

Mon sentiment est que la France a vraiment fait tout ce qui était en son pouvoir pour nous aider. Hélas ! la France ne peut pas à elle seule rétablir un régime de liberté en Espagne. Il nous faut à tout prix l'appui des démocraties occidentales, car la Russie est trop loin et ne peut pas exercer une pression efficace sur Franco.

De toute façon, si cette aide que nous espérons avec ferveur — car elle nous a été promise par la Charte de l'Atlantique, à Yalta et à Potsdam — n'arrive pas, nous nous arrangerons pour nous délivrer tout seuls. Mais alors le sang de nos martyrs coulera encore. De toute façon la fin de Franco n'est pas loin.

### Moscardo serait intervenu pour Garcia

«Sachez, et personne ne l'a encore dit, que Moscardo, le défenseur de Tolède, est intervenu en compagnie de nombreuses personnalités pour obtenir la grâce de Garcia, de Nunes et de Castro. Cette intervention avait été déclenchée par l'intermédiaire d'un camarade qui se trouve en France depuis la mort de mes amis, car il a été obligé de fuir. Je tais son nom pour des raisons que vous devinez, mais je ne crains aucun démenti. On croyait la grâce arrachée, et une fête fut organisée par mon camarade et par les familles des «graciés». Néanmoins, le lendemain Garcia, Nunes et Castro étaient fusillés. Ceci vous donne une idée de la fourberie de Franco.»

## Washington appuie—Les Italiens vote—

1946ko otsailaren 27ko «Le Monde».  
Ordokik: «Edozein modutara, irrikaz zain gauden laguntza hau —Atlantikoko Itunean, Yaltan eta Postdamen agindu digutena— iristen ez bada, bakarrik konponduko gara geure buruak askatzeko. Baina orduan gure martiriengoa odola isuriko da berriz».

## Abertzaleen batasuna

**L.—** Ez dakit hitz egin ote daitekeen abertzaleen arteko batasunaz hemen gertatzen ari direnekin. Zeuk ere ikusten duzu gauzak noruntz joan diren 1978tik gaurdaino.

**K.O.—** Egia da, zatiketa handiagotu egin da. Baina tamalez egun batean adostasun batera iritsiko gara abertzale guztiak, ezkerreko nahiz eskuineko, Herri Batasuna, Partidua, EA eta EE. Noiz, ezin dizut esan. Hori gertatuko da Madrilgo gobernutik gero eta gehiago estutzen hasten zaizkigunean, gero eta egur gehiago ematen hasiko zaizkigunean. Zenbat denbora pasako da? Ez dakit.

**L.—** «Punto y Hora» astekarian argitu zenituen zure bidez ETArekin, Garaikoa-  
txearen eta Madrilgo artean izandako kontaktoak. Eta oker ez banago, negoziaketa baten aurrean zuk marrazten zenuen eskema zera izango zen: abertzaleak asmo bateratu batekin azaltzea negoziaketara. Nolako eboluzioa ikusi diozu hari?

**K.O.—** Eboluzio txarra. Ia mamitu zen ahalegin hura. Negoziaketak, izan ere, iritsi beharra dauka. Hartu ditzake Gobernu espainiarrak nahi dituen neurri guztiak, frantsesek espulatsu ditzakete nahi dituzten guztiak, egurra emango dute... Armak behar badituzu, badakizu lau dinamita kartutxorekin sabotai bat egin dezakezula. Negoziaketa bat iritsi beharko du, eta horren barruan Autodeterminazioa.

Orain dela gutxi diputatu frantses batek esaten zidan: «Orain autodeterminazioa diozue, eta gero independentzia...». Erantzun nion: «Ikusi beharko da. Espainolekin ados jartzen bagara, ez da independentziarik izanen. Baina Gobernu espainolak bide batetik sartu nahi bagaitu eta guri interesatzen ez, ez gara hortik joango. Gobernu espainola eta frantsesa orain oso ondo moldatzen dira, baina bihar okertu daitezke, eta gerra bat ere egon daiteke. Espainolek gu frantsesen kontra sartu nahiko gaituzte, eta guk behar dugu askatasuna esan ahal izateko ezetz, guk gurea defendituko dugula».

## Negoziaketaren bila

**L.—** Hemen aipatzen dugun negoziaketa oso gauza abstraktoa da. Baina zuk parte hartu zenuen saio hura oso gauza konkretua izan zen.

**K.O.—** Ni «Ignacio» komandantea rekin —gero garbi jakin ahal izan da Galindo korolena zela hura— egon nintzenean, gauza argi eta zehatz geratu zen: Txominen aginduz joan nintzen ni berarekin hitzegitera. Txominen eta Garaikoa-  
txearen arteko elkarriketak ondo zihoazen. Oroi zaitez, Bakearen mahaiaren garaia ziren; badakizu mahai



*Epalza eta Heliodoro de la Torreraren bisita.*

**«Franco hilda ETakoek egurra ematen segitzen zuten eta 'denak elkartzeko garaia da, ez tirotarakoa' esaten nien».**

hura sozialistek lehertu zutela, sozialistek eta PNVk berak ere bai. Hura baino lehen urte bete baino gehiagoz ETArekin eta Gobernu espainolaren arteko kontaktoak izanak ziren, politikoekin eta militarrekin. Mundu guztiak daki. ETAK KAS alternatiba jartzen zuen beti aurretik, Autodeterminazioa barne, Madrilgoek ezetz, eta kontaktoetan aurrerapenik ez zen ikusten. Hala eten ziren.

Nik, aldiz, Txomini esaten nion akordioa lehenago Eusko Jaurlaritzarekin egin behar zela. Ona edo txarra, baina Jaurlaritza geneukala, eta berekin jarri behar genuela konforme, horrek Madrilgo aurpegia eman zezan eta ETArekin iritsitako akordioa esijitzen. Eta ETakoek berriz Eusko Jaurlaritza ez duela biperrik balio... Egia da, nahi baduzu, ez du biperrik balio baina martxan jartzen ari zen, bere ertzainekin, eta eman zituzten lau sosekin eta beste. Gero iritsiko zen LOAPA. Bitartean Madrilgo kontaktoetan segitzen zuten.

Baina kontakto horiek eten ziren, eta jakin nuenean ikusi nuen hura zela berriz saiatzeko unea. Garaikoa-  
txearekin elkarriketan hasteko oneritzia eman zidan Txomini, eta bilera batzuk ere egin genituen. Baina Madrilgo informazio zerbitzuek jakin zuten kontakto horien berri, eta zer egiten du polizia espainolak, Galindok alegia? ETA-

rekiko harremanetan zuten enlazearekin hitzegi. «Bai, kontaktoak martxan daude, zuekin ezertara iristeko modurik ez dagoe-nez; Eusko Jaurlaritzakoekin hasi dira» erantzun zien honek. «Eta nor da kontaktoa?». «Ordoki», esan zion; oker egin, zeren eta haiek jakingo zuten ordurako, baina ez zion esan behar. Haren bidez iritsi zitzaidan «Ignacio komandantea» nerekin egon nahi zuela enlazea. Erantzun nion bai Txomini eta bai Garaikoa-  
txeari komentatuko niela, eta haiek egoki ikusten bazuten joango nintzela. Ondo ikusi zuten biek, eta deiaren zain geratu nintzen.

## Guardia Civilarekin zita hotelean

**L.—** Eta hola gertatzen da «Costa Vasca» hoteleko zuten zita.

**K.O.—** Bai, eta han ezagutu genuen «Comandante Ignacio» bezala presentatu zena. Egundura arte ez genekien bere benetako kargua, eta horregatik aurkezpenak egiterakoan galdetu nion ea nor zen, edo noren ordezkaria zen. Eta erantzun zidan: «De la misma manera que usted representá a ETA, yo represento al Ministro del Interior, al señor Barrionuevo». Eta: «Zer nahi duzue?». «Badakizu orain arte KAS alternatibaren gainean aritu garelá izan ditugun kontaktoetan, baina horretan aurrerapenik ez zen posible eta hola eten dira harremanak».

Esplikatu dizudanez, Txomini KAS alternatiba pittin bat «limatu» beharra adierazten nion, Garaikoa-  
txeak ere hala esaten zuten eta. Zerbait limatu. Eta konformitate batera iritsiak ginen: Garaikoa-  
txearen lau gizon —diputatu eta abar— joango zirela eztaba-  
datzera ea KAS alternatibatik zer limatu ahal izango zen. Horixe zen falta zen bilkura, eta orduan enteratu ziren Galindo eta horiek, eta niri deitu. «Costa Vasca»ko zita horretan Galindok esan zidan prest zeudela amnistia osoa emateko.





*Miarritzeko ospitalean zeuden zaurituekin.*

**L.—** Eta zuk galdetu zenion «Zabarte barne?»...

**K.O.—** Hori da. Eta berak: «Baita ere, baina ezingo da berehala atera. Odol delituak dituztenek pittin bat itxoin beharko dute, baina beren egoera hobetuko litzateke espetxean. Horiek libre utzi eta Txomin eta denei etortzen utziz gero Fraga eta beste erotu egingo bait lirateke. Espetxeetako egoerak hobetu, eta Txomin eta horientzako behar den dirua Hegoameriketara edo nahi duten lekura joan daitezen. Zuretzako bezala, nahi duzun dirua eskatu, zeren eta badakigu gauza hauek kosta egiten direla».

Aipatzen zen baldintza zen ETArene tre-goia. Orduan nere aldetik: «Beraz, goizaldeko detentzioak eta torturak ere gelditu daitezela. Estradiziorik ez dadila izan, eta GALEk bere hilketak gelditu ditzala». Berak: «Bueno, GALEn asuntiaz guk ez dakigu ezer». Nik, altxa eta esan nion: «Zuk esaten badidazu GALEz ezer ez dakizula ni banoa, hizketan segitzeak ez du merezi». Keinu berezi bat egin zuen, eta eskoltan zituenak ere mogitu ziren, baina geldirik egoteko zeinu bat egin zien eta «eseri zaitez, mesedez, segi dezagun elkarriketan». Estradiziorik ez zela izango agindu zuen.

Han segitu genuen eta bi orduren buruan azkenean esan zidan: «Gogoan al duzu esan dugun guztia?». «Bai», nik. «Ni gela batera noa hitzegin duguna paperean idaztera, eta gauza bera egiteko eskatzen dizut. Komunikatzea iezaiozu hau dena Txomini, eta erantzuna daukazunean deitu, edozein ordutan, eta zita jarriko dugu», eta telefonoak ere eman zizkidan. Esan nion: «GAL batetik eta frantsesekin daukazu kolaborazioa bestetik, gauza hauek ezin dira egun batetik bestera egin». «Bueno, bada ahalik eta azkarrena». Eta berriro aipatu zuen baldintza: «Bide honetatik segitzekotan 'condición sine qua non' da ETak atentaturik ez egitea». Eta erantzun nion: «Sei hilabete daramatza ETak

**«Orduko asko lehen bezain abertzaleak dira baina beldurtiak: aberastuta, gaiso edo zahartuta daukelako».**

atentaturik burutu gabe. Atentaturik ez izatekotan, zuek ere gaueko errejistroak-eta gelditu beharko dituzue». «De acuerdo», eta hola bukatu genuen.

### **Estradizioak eta elkarriketen etena**

**L.—** Zerbaitetan ari zinetela pentsatu daiteke zure hitzetatik, eta aldiz ezertara ez zineten iritsi.

**K.O.—** Zer gertatu zen? Haiek bazekitela ETArene eta Garaikoetxearen artean kontaktoak bazirela, eta akordio batera iristekotan. Felipe Gonzalez ere Ameriketatik eta Europatik ibilia zen «terrorismoaren» aurkako propaganda eginaz. Garaikoetxea eta ETA beraiek baino lehen adostasun batera iritea ez zitzairen interesatzen. Eta PNVko zati batek ere ez zuen inolako interesik Garaikoetxea joko horretan indartuta ateratzen ikusteko.

Ordurako auzitegi frantsesek estradizioetarako baimena emana zuten, baina gobernu frantsesak uko egiten zion neurri horri. Badinter zen justizi ministraria, eta Bordaletik pasea zen, hango udaletxean izandako bilkura batera etorrita. Eta bilkura hartan egon behar zuen jeneral bati abisoa pasatu genion alderdi sozialistako emakume garrantzitsu baten bidez, Badinterrekin komenta zezan ea estradiziorik izango zenetz.

Eta goizaldeko ordubietan deitu zidaten Bordaletik esateko estradiziorik ez zela izanen. Galindorekin izandako bilkura hartatik pare bat egunetara izan zen hau.

Eta hiruzpalau egunetara, Gobernu sozialista frantsesak estradizioak ematen ditu. Fabius-ek esan zuen hiltzaile batzuk zirela; egun gutxi barru bat libre utzi zuten, eta gero beste bat, hura gezurtatuz, baina enfin. Gobernu espainiarrak presio egin zuen frantsesen gain estradizioak izan zitezen, ETA Garaikoetxearekin adostasun batera iritsiko zen beldurrez. Laster egin zuen ETak hurrengo atentatua. Horrela eten zen dena, eta inork ezer esaten ez zuenez, nere bertsioa eman nuen «Le Monde»n bezala «Punto y Hora»n.

**L.—** Hala ere kontakto eta negoziaketek segitu dutela dirudi. Ezertara iristeko modurik ikusten al duzu?

**K.O.—** Bai, baina horretarako bi aldeek eman beharko dute amore zerbaitetan. Noiz gertatuko da hori, bihar, etzi? Ez jakin. Baina konponbide batera iritsi beharko da, nolaz eta ez datozen euskaldunok txirtxilatze-ra. Konponbiderik gabe, hemen segituko dute kotxeak kixkaltzen, bonbak jartzen, jendea bahitzen. Jakina, badira batzuk kontrola galtzen dutenak, baina badago jende ona, jende serioa, jende abertzalea, bizia jokatze-ko prest dagoena, eta batek gainera hogeitalau edo hogeitamar urte dituenean horretara entregatzen da ondorio guztiekin.

### **Eusko Abertzale Ekintzakoa**

**L.—** Gerra garaian, eta lehendik, Eusko Abertzale Ekintzakoa, ANVkoa zinen. Eta gaur?

**K.O.—** Independientea naiz, eta talde abertzale guztietakoekin ditut harremanak. ANV badakizu Herri Batasunan dagoela, eta horiekin ondo moldatzen naiz. Beste batzuk, ANVkoak izan direnak, ez daude hor, eta horiekin ere ondo konpontzen naiz. Hauetako batzuek kezkatzen dira gauzen martxaz—denak dira abertzaleak, hori bai— eta beste batzuek ez hainbeste. Ni berriz, behar bada daukadan odol gaiztoagatik, saltsatan nahastuta segitzen dut. Herri Batasunakoen gauza askorekin ados nago, baina beste batzuetan ez, eta horregatik ez noa haiekin. EAKoak ere etorri zaizkit, baina berdin.

Begira, Acción Vascako egitaraua gaur 36an baino biziago dago, baina mediorik ez dauzkagunez hor gaude taldetxo bat izatera kondenatuta. Partiduak dituen medioak bagenitu, beste indar bat genuke. Hala izan gara beti ANVkoak. Orain, aurpegia ematera-koan beti aurrenak.